

# Erlatibo hautsiak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (I)

VÍCTOR HIDALGO EIZAGIRRE\*

## 0. SARRERA<sup>1</sup>

Euskarazko hitzen ordenaren inguruko atal gehienetan bezalatsu, erlatiboazko esaldien inguruan ere hedatu dira gure artean XX. mende osoan zehar hainbat topiko erreduktionista, mesedegarri baino kaltegarri bihurtu zaizkigunak hizkuntza estandarren garapenean. Areago, topiko horiek sus-trai sendoegirik erakusten ez duten neurrian hizkuntzan barrena.

XX. mendean zabaldu kanonak zalantza gabe agintzen du euskaraz esaldi erlatiboa eman dadin lagundu nahi duen izen ardatzaren aurretik beti, ezkerretik, eta ez ondoretik. Preskripzio absolutu honen jatorria Azkuegan bilatu behar da, hitz ordenaren inguruko beste gehienena bezalatsu. Azkuek ematen du *Euskal Izkindea*-n jada “*arau bakarra mendetasunez alkarturiko itz banatuen esapiderako*” (1891, 334, §759), eta bertan agindu: “*osaki mendetuak mendedunen aurretik ipini bear daizela*”. Gaztelaniaz dio: “Regla única. Los complementos regidos deben ponerse delante de los regentes.” Eta *osaki mendetuen* artean kokatzen ditu esplizitoki erlatiboazko esaldiak, hauentzat hitzez hitz errepikatuz erregela (1891, 356, §764). Azkuek ez du preskripzioa hizkuntzaren inolako azterketa objektibotan oinarritzen, baina hori ez da oztopo izan ezin arrakasta zabalagoa beregana dezan XX. mendean barrena. Preskripzioarekin, Azkuek eta XX. mendeko tradizio gramatikal nagusiak erabat

\* Doktore Euskal Filologian.

<sup>1</sup> Besteak beste, 1998-99 eta 99-00ko ikasturteetan izan dudan Eusko Jaurlaritzaren ikerketa bekarri esker bururatu ahal izan dut lan hau. Ikasturte biotan izan naiz Baionako Unibertsitate Arteko IKER Euskarari eta Euskal Testuei Buruzko Ikerketa Taldean (UMR 5478 / CNRS –Université Michel de Montaigne Bordeaux III– UPPA), Beñat Oihartzabal zuzendariaren gidaritzapean.

ahaztu, edota, gaitzetsiko ditu euskararen ahozko zein idatzizko tradizio ho-berenean ardatzaren eskuinetik (ere) eman ohi diren erlatibo mota ezberdi-  
nak. Azkue da hegoaldeko anti-zeinismoaren aitalehen 1891tik aurrera (Hi-  
dalgo, 1993), nahiz anti-zeinismoaren sona P. Orkaiztegik bereganatu bere  
1906ko liburutik aurrera (Iparraldeko anti-zeinismoak ibilbide propioa du).  
Bestalde, XX. mendeko tradizio gramatikal (ia) osoak ahaztuko ditu euskaraz  
ardatz determinatu, edo, determinatugabeen ondotik, eskuinetik, horren usu  
eman ohi diren erlatibo arruntak *-(e)N...* atzizki bidezkoak batez ere).

Nire ustea da, ordea, norabide prepositibo bakarreko prozedura honek,  
euskararen barrena erabiliden bakarra ez izateaz gain, arazo ugari eragiten diz-  
kiola euskal hiztunari, idazleari, egitura erlatiboak emateko garaian hauek ba-  
tere luzeak diren orduko, edota bi edo erlatibo gehiago kateatu behar ditue-  
nean ardatz beraren inguruan. Arazoak ez dira txikiagoak mezu  
hartzailearentzat esaldi luze horiek deskodetzeko garaian. Horregatik aztertu  
nahi ditut artikulua sail honetan ikuspegi global batetik izen ardatzaren eskuin  
(ere) hedatzen diren erlatiboak euskaraz, hurbildu nahiz hauen erabilera bal-  
dintzetara, eta defendatuz nire ustez hainbat lasaitu behar lireratekeela idazlea  
estekatu baino egiten ez duten kate kanoniko prepositibo horiek.

Artikulu honetan egingo diegu begiratu bat *erlatibo hautsiei*, hau da, mo-  
du arruntean ardatzaren ezkerretik abiatuta, artean osagairen bat erakusten du-  
tenak ardatz horren eskuinetik ere, ze, segidan ikusiko dugun bezala, halako er-  
latiboak badira euskaraz. Ondoko artikuluetan aztertuko ditut izen ardatz  
determinatu edo determinatugabeen erabat ondoretik eman ohi diren erlati-  
boak (apozizioak eta *zein* erlatiboak), eta emango guztien ikuspegi orokor bat.

Zorionez, Euskaltzaindiak 1999an argitaratutako *Perpauk Erlatiboak* la-  
nak (EGLU-V, 173-270) hainbat lasaitzen ditu jada erlatiboen inguruko to-  
piko-debeku kanonikoetako asko. Euskaltzaindikoko Gramatika Batzordea lan  
horren prestakuntzan ari zela aurkeztu zuen Areatzan 1998ko udan lanaren  
zirriborro bat, eta haren iruzkin modura aurkeztu nuen orain argitaratzen ha-  
sitako lan honen zirriborroa. Eta lan honek ere izan bide du agi danean era-  
ginen bat azkenik Euskaltzaindiak argitaratu txostenean<sup>2</sup>.

## 1. ERLATIBO HAUTSIAK

Deitura honen pean bildu ditut *-(e)n* atzizki bidezko egitura erlatibo  
arruntak, ohi bezala laguntzen duten ardatz haren ezkerretik abiatuta ere, ar-  
tean osagairen bat erakusten dutenak haren ondoretik (erlatibozko esaldiko  
aditzaren, honi erantsitako *-(e)n* mendekotzaile eta izen ardatz independen-  
tearen ondoretik). Fenomenoa, oro har, gaitzetsia eta ukatua izan da gaur ar-  
tean berau ahotan hartu duten gramatikalari guztien artean, hala nola, De  
Rijkek (1972, 8, 50, 164-6), edo Oihartzabalek (1985, 17-18, 115, 117-8;  
1987, 24). Azken honek, hala ere jasotzen du 1985ean salbuespen aukeraren  
bat, kasurako nahikoa esanguratsua *-autore ugarirena* ote den baitio Oihar-  
tzabalek-, nahiz lizentzia poesiari atxiki soilik orduan. Hala dio (1985, 118):  
*«Cette contrainte assez stricte est parfois violée en poésie où la post-position est*

<sup>2</sup> Halako zerbait aitortzen da EGLU-Varen aurkezpenean. Zirriborroa aipatua da ere J.A. Mujika  
1999n.

*rendue possible et attestée chez de nombreux auteurs. Voici un exemple d'Oxobi: Et Agorrilaz, urhe distiran / den ogia zelhaietan. Le blé qui, en août, brille comme l'or, dans les champs*<sup>3</sup>.

Euskaltzaindiko txostenak ere agerian segitzen du predikatzen (2.2.2., 177): [-(e)n erlatibo arruntetan] *menderagailuak nahitaez azken tokian agertu behar duela, eta, beraz, adizkera jokatua beti hondarrean behar dutela*. Baina preskripzioa hainbat goxatuko du Duvoisin eta Añibarroren erlatibo hautsi banaren harira<sup>4</sup>, eta zuhurrago erantsiko (2.2.5., 184): ..., *nahiz agertzen diren testuetan kontrako adibideak ...*, eta ... *nekez esan dezakegu ... agramatikalak direla*. Nahiz zalantzan jartzen duen hauen maiztasuna (*ez dirudi jokabide hori maizkoa denik, idatzian bereziki* (id.)), eta ez dituen gomendatzen kontu handiz erabiltzeko ez bada (id.).

Nik, nolana, defendatuko dut hemen erlatibo hautsi hauek ez direla horren urriak, eta batez ere, merezi dutela hurbilxeagotiko begiratu beren erabilera ingurumariez jabetzeko.

## 2. ERLATIBO HAUTSIEN TESTIGANTZAK

2.1.ean jaso ditut zenbait autoreren erlatibo hautsien adibideak. 2.2.an, gaur eguneko ahozko zenbait adibide kualifikatu. 2.3.an, ahozko testigantza arruntagoak. 2.4.an, Axularrenak. 2.5.ean, azkenik, zenbait autoreren hala moduzko erlatibo hautsiak, baina beste kategoria gramatikalki batzuetan sailkatu ohi direnen artekoak (*erlatibo fosilduak* edo)<sup>5</sup>.

### 2.1. Zenbait autoreren erlatibo hautsiak

- (1) **Ekartcenditutçuen chapelac buruaren gainean, ...** (S. Pouvreau, 1892, 17)
- (2) **..., behar dudari ahalkadura çure guciz gaineco Majestateari laudoriozco sacrificio appur hunen ofrendatceaz, ...** (...), la confusion que je dois avoir doffrir a vsre tr. haute Ma. vn si petit sacrifice de louanges, ... (S. Pouvreau, 1892, 28)
- (3) **..., escatzen diozcadan mesédeac neretzat ta besterentzat ...** (M. Larra-mendi, 1990, 83)
- (4) **Orra lauñoeco bati emoten jacon paguba urte betian erregaluban eu-quita.** (J.A. Mogel, (1802) 1881, 88)
- (5) **Eztabe neurriric, ecin mugatu, ta cembatu leiz, libru ònac zucendu, ondu, ta ceruco vide artecera ecarri dituezan becatariac, ateraric deabruaren azpitic, ta bere aguintaritza gogor gogaicarritic.** (P.A. Añibarro, 1802, 2)
- (6) **Sabeleco frutua ta semeac euquitea da, Jaungoicoac emoten deutsan saria, senipartea, erentsia ta mesedea arima on bati.** (P.A. Añibarro, 1897, 201)
- (7) **...; eta beragaitic ezteutsat quendu gura izan, Axularrec berac esqueñi, ta zuzendu eutsan Carta alabagarria Echaus Arzobispo Jaunari, ...** (P.A. Añibarro, 1923, 299)
- (8) **..., adierazoteco Jaunac eguin oi deutsen laguntasuna nequepeturic bici dirian guizagaisso erruquigarriai.** (P.A. Añibarro, 1987, 228-229)

<sup>3</sup> Bi autoreek aipatzen dute, hala ere, «haustura» aukera hori erlatibo librean kasurako (ik. 8. atala).

<sup>4</sup> Gure segidako 2.1. ataleko adibideen artean aukeratuz hauek (ik. (7) eta (10) adibideak).

<sup>5</sup> Adibideok guztiak ez dira batere sistematikoak, ez exhaustiboak (salbu Axularren kasuan), baina ezta nire ohiko jardun eta irakurketetan ezarian bilduak. Ez du esanahi zuzenik, beraz, aurkezten duen autore bakoitzaren adibide proportzioak, eskasiak edo faltak. Axularrez gain, exhaustiboki, soilik azterketako bi corpus nagusiak jorratu ditut (I eranskinean dira bertan aurkitu 105 erlatibo hautsiak).

- (9) **Ahalketzen den semea bere ait'amen aphaltarzunaz ...** (J.B. Arxu, 1868, 61)<sup>6</sup>
- (10) Ezar baginetza bata bertzearen gainean **hekietan egin diren galtzeak urthe bakar batzuez, ...** (J.P. Duvoisin, 1858, 61)
- (11) Horiék dira **Maria Birjinak egun berheziki erraiten deizkun hitzak, gouri eta Khiristi houn guziér.** (E. Intxauspe, 1894, 1)
- (12) ... ezagut arazten daukute, ... **heiek izanen zuten higuintza eta arbuioa egundo gure dantza tzarrentzat eta bere itsuskerientzat.** (M. Elizanburu, (1889) 1993, 3)
- (13) Jakin dügü bihotzeko atsegin egiazko bateki **Pariseko jaun gazte batek hartü dian egitekua gure herritar güdükari zaurthien hunetan.** (P. Lhande, 1914, 243)

Badira adibideak testu apalagoetan ere, nola 1776an Sarako Udalak Baztangoari eginiko eskutitzekoa (14), *E. Egunkarian* argitaratutako atsotitzekoa (15), edota X. Aierdi EHUKo Soziologia irakaslearena (16):

- (14) Berce alde Jaunac **çuec eguin duzuen Etchea gure muguen Inguruan oihassurgo partean ...** (1776, ap. G. Egia, 1991, 92)
- (15) **Jaten den lekuan aza eta arbi,** ezin daiteke izan etxe atzea garbi. (*EEg*, 2000-VI-29, 2)
- (16) Kultura politiko nazionalista berriztatzaile batek ez lituzke hain erraz mesprezatu beharko **eskuratu diren hainbat lorpen gure Erkidegoan azken hogeï urteotan ...** (X. Aierdi, *EEg*, 1998-XI-12, 4)

Segidakoa ere, Amurizaren *Enaz banaz* liburuaren gainean ari dela, antz batekoa da, nahiz *-tako* erlatibo jokatugabe bidezkoa izan:

- (17) Frankismoaren diktadurapean apaizgaitegian bizi izan zuen giroa, ..., Zamorako espetxean sufritu izan zuena, **apaiz izateari utzi eta egindako ibilbidea politikan, bertso munduan, idatzitakoetan...** (A. Ugarte, *Auzoka*, 2000-VI-24)

Segidako adibidea Altubek jasotzen du (*de un periódico de Bilbao* dio) bere lehen sintaxi lan handian (1919, 84):

- (18) Eiztarijak be ondo zenbatuten ditube **igaro bihar diran egunak illargi barrirako**

Berehala zuzentzen hasteko, noski: “Lo que debe corregirse como sigue,...: ...**illargi barrirako igaro bihar diran egunak**”.

Adibide gehiago topatzea ez da aritze kontua baino.

## 2.2. Ahozko erlatibo hautsien testigantza kualifikatuak edo

Halakotzat jo genitzake segidakook:

- (19) Edo *hil dela norbait, eta pozik da[g]oen jendea [hildakoak] utzi dizkion gauzengatik, ...* (J.M. Satrustegi, Euskaltzain, 1993)<sup>7</sup>

<sup>6</sup> Esaldia, ordena horretan, soilik Arxuren *hitzez hitzeko* bigarren *explication*-ean ematen da. Lehenengoan hautsi gabe: *Bere ait'amen aphaltarzunaz ahalketzen den semea ...* (1868, 59).

<sup>7</sup> A. Arzak Euskadi Irratian eginiko elkarrizketatik 1993ko Otsailaren 18an. Eskerrik asko, hemendik ere, berari, grabaketarekin eskainitako laguntzarengatik. Esaldia 1994ko corpusean dago bildua (I eranskina 82).

- (20) Mitxelenak pozik ikusten zuen zein bidetan sartuak ginen, eta guk segitzen dugu *Mitxelenak urratu zuen bidea Arantzazun*. (J. Haritxelhar, Euskaltzainburu, 1998)<sup>8</sup>
- (21) (Zeren pisu gehiena dutenak dira –gaizki esanda– gazte muturzikin batzuk, karrera batzuk bukatu erdizka, titulu errax bat lortu, eta hortxe mass-medietan daudenak.) Eta *euskara espantagarri bat erabiltzen duen jendea... jeneralean behintzat*. (B. Atxaga, idazle, 1990)<sup>9</sup>
- (22) (Ipar Euskal Herriak ez omen du historiarik. Egia da?) Ziur ezetz. **Karrakutzen den puntutik azala**, ikusten da historiaurreko aztarnetarik hasirik berriki arte historiaren partaide izan dela, ... (L. Etchezaharreta, idazle, *EEg*, 1997-XII-14, 40)<sup>10</sup>
- (23) Ikusirik *orain Arzallusek egin dituen adierazpenak Ansoni buruz*, ... (X. Gurrutxaga, politikari, 1998)<sup>11</sup>

### 2.3. Ahozko erlatibo hautsien testigantza arruntagoak edo

Halako izan litezke:

- (24) **Egon garen taberne aitteas** ixi in deude<sup>12</sup>
- (25) Amon tzet **etor den andrieri etzera**<sup>13</sup>
- (26) (Oañ maestrak eta,) **oañ ai din oik** eta *umiri erakusten*, (zuek or zailz-taten oik, beste zea bat ematen yozute)<sup>14</sup>
- (27) **Igertzeko moduan pilotariak gintzesena** (K. Uriarte, *LT*, ETB1, 00-I-10)<sup>15</sup>
- (28) Eta beste bat oraintxe ointxe ountxu amaitutakue *neuk Irlandan ziar egin dodazan ibiltaldien gañean bai oinez eta bai bizikletaz*. (A. Egu-rrola, *Goizean behin*, in Larramendi mintegia, Entzungaiak 27 -CDa)
- (29) **Daguen orduan bero asko** (J. Amadeo, in Lavender Films, *Euskararen bidean*, Bilbo Handia II –bideoa–)

### 2.4. Axularren testigantza<sup>16</sup>

Axularren 1644ko *Gero*-a aztertutik ere aurki liteke bertan antzeko erlatibo hautsirik, izen-ardatzaren eskuinetik artean zenbait osagai erakusten duenik, nahiz adibideak oro har ez izan beren joskeran aurrekoak bezain garbiak. Hala, esateko, segidako esaldia:

- (30) Eta hunetacotçat, considera eçaçu, **eriac gau lucean iragaiten duen tra-  
baillua, guztiz ere eritasuna çorrotza, eta bortitza denean**: nola irautcal-  
cenden: nola orenak contactcen dituen: cein luce idurritcen çaitçan, eta  
nola arguia desiratcen duen (598-9)<sup>17</sup>

<sup>8</sup> Elkarrizketaren transkribapenetik jasoa (*El Mundo*, «Vivir aquí», 9, 1998-III-14), grabaketa entzun gabe.

<sup>9</sup> J. Garziak eginiko elkarrizketaren transkribapenetik (*Senez*, 9, 1990, 19), zuzeneko grabaketa entzun gabe.

<sup>10</sup> Elkarrizketaren transkripzioetik jasoa, zuzeneko grabaketa entzun gabe.

<sup>11</sup> Euskadi Irratiko goizeko tertulian emana (1998-II-20).

<sup>12</sup> Hau da: *Egon garen taberna aitagaz (!) itxi egin dute* (I. Gaminde, 1997, *Gatikako Euskaraz*, 119).

<sup>13</sup> *Eman diot etorri den andreari etzera* (I. Gaminde, *Bilbo Berbaz Berba*, 1990, 150).

<sup>14</sup> Hau da: *Orain ari diren horiek umeei erakusten* (I. eta A. Fraile, *Oiartzungo hizkera*, 1996, 131).

<sup>15</sup> Erlatibo jokatu gabe bidezko esaldia.

<sup>16</sup> Atala bereziki jorratu genuen 1999ko apirilaren 13an Baionan Axularren inguruko batzarraren aitzakian, eta Axularren hitzen ordenaren inguruko hausnarketa nagusiagoen artean eginiko hitzaldian (Hidalgo, 1999a).

<sup>17</sup> Atal honetako aipuak jatorrizko argitalpenaren facsimiletik eginak, corpus nagusietakoak ez bezala.

Zalantza handirik gabe, *iragaiten* aditzaren denborazko osagarri da *guztiz ere eritasuna çorrotza, eta bortitza denean* osagaia, ardatzaren eskuinetik emana. Antzekoa izan liteke segidako esaldi nahasixeagoa:

- (31) Halaber eguiten baititutu bertçe iuramentu batçuc, *deus valio ezuten gauça batçuen gaiñean, ezpaita hequen hautzteaz calteric eta ez complitceaz probetchuric*, nola baita, mahaian iartcean, etçarela lehenic iarrico, etchean sartcean, etçarela aitcinean sarthuco: edatean eztuçula lehenic edanen (156-7)

*Ezpaita hequen hautzteaz calteric eta ez complitceaz probetchuric*, osagaia, aurreko *valio izan* aditzaren kausazko osagarri litzateke, hau da, *zergatik delako gauza horiek ez duten deus balio*-edo galderaren azalpena. Antzekoa segidakoa ere, nahiz nahasiagoa oraindik:

- (32) Eta çuc ere orduan, *orai duçun desira, nahi baitcenduque, çure erremusinac, eta eguiten ditutçun bertçe obra onac, munduac iaquin litçan*, *complituco duçu* (230)

*Nahi baitcenduque, çure erremusinac, eta eguiten ditutçun bertçe obra onac, munduac iaquin litçan* osagaia *duçun* aditzaren kausazko osagarri dela dirudi, eta ez *complituco duçu* aditz nagusiarena. Behartu litezke halako interpretaçioak Axularren esaldi gehiagotan ere:

- (33) Içan çutenean Erroma-tarrec, *desiratcen çuten abantaila eta garaitia, Cartagotarren gaiñean*, sarthu ciren conseilluan Erromatarrac, ea cer eguinen çuten, Cartagoco hiri hartçaz (30)

Zeren osagarri da *Cartagotarren gaiñean* osagaia? Hurbileneko *desiratcen çuten* aditzarena, lehen kolpean zuzenena dirudien bezala? Ala hasierako *içan çutenean* harena? Irakurleak, arruntki, osagaia aurretik emaniko hurbileneko aditzaren osagarri bezala prozesatuko du (*desiratcen çuten* aditza), kasuan ematen ez den beste eragozpenen ezean, nahiz a posteriori egin litekeen beste interpretaçiorik<sup>18</sup>. Antz batera segidako esaldian ere:

- (34) Bada zuc *iragan diren urthe guztiotan, behin ere ongui cofessatu gabe, beccatutan gogorturic eta ez ansiaturic çaudecinorrec, certain baratu uste duçu?* (110)

Zeren osagarri da *behin ere ongui cofessatu gabe* hori? Emaniko eta hurbileneko *iragan diren* aditzarena, ala artean etorkizun den *çaudecin*-ena? Irakurleak lehen kolpean aurreko aditzarekin lotuko du, erabat sobera egon litekeelarik interpretaçio zuzen baterako ondoko mendeko esaldi osoa (*Bada zuc iragan diren urthe guztiotan, behin ere ongui cofessatu gabe, certain baratu uste duçu?*). Baina egia da hausnarketa ondoren erraz lot litekeela osagaia bigarren esaldi erlatiboarekin (*behin ere ongui cofessatu gabe, beccatutan gogorturic eta ez ansiaturic çaudecinorrec*), nahiz ez izan hori bat-bateko interpretaçioa. Antzeko zerbait segidako esaldian:

- (35) Utçaçu beraz burutic, *buruan darabillaçun erhoqueria hori, egunetic egunera, heriotçeraiño luçatuz eta epe hartuz, orduan erremediatico çarelaco esperantçarequin*, anarteraiño beccatutan egoite hori (217)

<sup>18</sup> Behartu liteke hirugarren interpretaçio bat, *Cartagotarren gaiñean* osagaia juzgatuz zuzenean *abantaila eta garaitia*-ren izenlagun, nahiz kasuan hartu ez *-(e)ko* atzizkirik.

Zeren osagarri dira *egunetic egunera, heriotceraiño luçatuz eta epe hartuz* eta *orduan erremediatoço çarelaco esperantçarequin* osagaiak? Irakurle arruntak, lehen kolpean besterik gabe prozesatuko lituzke *buruan darabillaçun* esaldiaren osagarri bezala, batere itxaron beharrik gabe amaierako izen sintagma berriari. Hala ere, egia da, behin azken izen sintagma berria irakurri eta gero, a posteriori, aipatu osagaiak honi ere egoki asko lot dakizkiokeela (egokiago agian).

Zenbat aldiz irakurri dugu Axularren *Gero* halako erlatibo hautsien arre-ta hartu gabe? Zer ez ote da gertatzen gutxiago ezagutzen ditugun obrek? Zail da aurkitzen bilatzen ez dena.

#### 2.4.1. Axularren erlatibo hautsiren bat egitura gramatikal fosilduan

Halako esaldi erlatibo hautsiak badirudi maizago aurkitzen ahal direla, oro har, erlatibo egitura fosilduetan *-(e)n bezala, -(e)n moduan, -(e)n arte(an;...), -(e)n bitartean, -(e)n bezain ...* itxurakoak<sup>19</sup>. Axularrek badu halako adibide bat ere gutxienez *-(e)n bezala* egiturarekin:

- (36) Erraiten du San Agustinec, *emazte gaixtoac, ithaiçurac, eta kheak atheratcen duten beçala giçona bere etçetik*: atheratcen duela conciencia gaixtoac ere beccatorea bere sosegutic (427-8)

#### 2.5. Erlatibo hautsiak egitura gramatikal fosilduetan

Axularrekin jaso dugu adibide bat (36). Oro har, badirudi errazagoa dela halako erlatibo hautsiak aurkitzea hauen ardatza nolabaiteko egitura fosildua eta maiztasun handikoa denean (denborazko, moduzko edo konparaziozko esaldiak osatuz), segidako adibideetan bezala<sup>20</sup>:

##### **-(e)n aldioro**

- (37) **Astendugun aldioro** *zomait obra on*, edo ikustengrelaric zomait necesidade, tentacio edo peligrotan, principalqui ssaiquitcean ogatçetic, elquitcean etseric, sartcean elizan, ssatean eta eguitean loo (BOEZa, 457)<sup>21</sup>

##### **-(e)n arte(an/raino/...)**

- (38) ..., *gucen asnase, indar, bici guciarequin, emen diraugin artean graciaz, ta guero ceruan gloriaz* (Larr, 57)
- (39) Egiaz esaten dizut, etzerala andic ateraco, *alic eta pagatu dezazun arte azqueneco ardita* (BOEG, 3224)
- (40) ..., *alic eta alderaturic gueratu zan artean, aurra cegoen gañean* (BOEG, 3224)
- (41) Eta etzuen esagutu **erdi zuen arteraño** *bere seme lenijayoa* (BOEG, 3223)
- (42) Ogia janen duzu belarreko izerdiaren khostuz, **utzul zitién artino eginik izan zien lurrialat**: erhauts beitzira, erhausturen zira (BOEZ, 642)
- (43) Eta nonta izar ecusiecina iguzquiaren erquinguiuan faitencen beren antzinian, **baratucen artio eltiari aurra zagon lequiaren aurquiara** (BOEE, 325)

<sup>19</sup> Ikus 2.5. ataleko adibide saila, edota I eranskinean.

<sup>20</sup> Egiturak ordena alfabetikoan jasoak, exhaustibotasun ideiarik gabe (I eranskinean adibide gehiago).

<sup>21</sup> Atal honetako adibide asko dira Bonaparteren eskuizkribu argitara berrietatik ekarriak. Eta izan ere nahikoa da liburukien amaierako azterketa sintaktikoetako adibideen artean begiratzea, halako adibideak saldoka topatzeko.

- (44) Saserzte ene escoñara, *nic izartandituan artian zore enemiguac zore zancuen asientotaco* (BOEE, 325)

**-(e)n baino**

- (45) Orhoit çaitte Simoni erraitera ihardets dieçadan eta escriba dieçadan maiçago **eguiñ duen baiño** *lehen demboran* (Vol, 181)

**-(e)n bezain**

- (46) ..., **declaratu duen beçain laster** *bera cela bere Eliçaren burua, ...* (Pou, 50)

**-(e)n bezala**<sup>22</sup>

- (47) ..., ezteçála trompettà io eraci eure aitzinean, *hypocritéc eguiten duten beçala synagoguetan eta carriquetan*, guiçonéz estima ditecençat: ... (Leiz, Mat, 6, 2)
- (48) ...: *Scribatua den beçala Prophetetan*, Huná nic igorten diat ... (Leiz, Marc, 1, 2)
- (49) ... eta *scribatua den beçala guiçonaren Semeaz*, behar da anhitz suffri deçan, ... (Leiz, Marc, 9, 12)
- (50) *Eçagutzerá eman draucuten beçala lehen hatsetic ikussi dituztenéc eta hitzaren ministre diradenéc* (Leiz, Luc, 1, 2)
- (51) *Gure aitey miñçatu çayen beçala, Abrahami eta haren haciari iagoitcotz* (Leiz, Luc, 1, 55)
- (52) ..., **erraiten den beçala** *vrrea eztela choilqui Iguzquiaren vmea, ...* (Pou, 92)
- (53) ...: **icusi zan beçela** *Espiritu Santuaren beraren etorreraco, ...* (Ge, 1, 22)
- (54) ...: *orain daño beti arguitu duen beçela, Jaungoicoaren beraren itza gar-biro eracusteco, utseguiteric dan chiquiena ere fedeco gaucetan iñoiz ere eguin bague* (Ge, 1, 31)
- (55) ...: **esaten bazien bezala, ...**, *zuek baño obeto daki, ...* (Lard, 49)
- (56) **Esan bazien bezala**, *¿nere eskubidearen berri etziniékien?* (Lard, 60)
- (57) **Arthizarrak lehentzen dian bezala** *ekhiaren agertzia, ...* (Int, 22)
- (58) Nahiago bainuken nik izan balitz han, gain hartan, gure arteko apezetarik bat agur egiteko, **zor zitzakon bezala**, *apez eskualdun arrotz gu hainbertze maite gituen hari* (Et, *Buruchkak* 159, ap. Euskaltzaindia, 1999, 179)
- (59) *Jatecó gose izátea dén beçala gorputzarén osasunarén señałe, ...* (BOEHGN, 1537)
- (60) Parabolagáu explicatuzué erranzuen **becála** *Cristoc berac* (BOEHGN, 1537)
- (61) ..., *xoriek kantu egiten duten bezala, gaineratiko jakitaterik gabe* (Laf, 39)

**-(e)n bitartean**

- (62) Ecin guenzaque, aliqueta abere guztia bildu ditezten bitartean, eta **quendu dezagun bitartean** *putzucó aoco arria, edan dezaten artaldeac* (BOEG, 3224)
- (63) Ez da iragoco labañaric bere burutican **bete dedin bitartean** *Jaunari consagratua dagoan eguna* (BOEG, 3223)
- (64) Aseguratzendautut eguiazqui candic etzrela elquien **pagazazun bitartio** *azquen maravedia* (BOEZA, 457)

<sup>22</sup> Jaso dugu Axularren halako beste bat 2.4.1. atalean.



-(e)n denboran<sup>23</sup>

- (65) *Erreinuco semeac (judioac) egotzric izanendren tembran campo iluntarzunetra, can izanéunzu llantoa eta ortzez quirrisca eguita* (BOEZA, 457)

-(e)n gisa(n)

- (66) *Eta ceruco izarrac erori ciren lurraïn gañera, pico ondo batec bere picoac erortzera uzten tuen guisa, aice aundi batez iguitua delaïc* (BOEIGN, 1271)
- (67) *Brillazala cala zuen arguiac guizonen altzinean, icusdrozqueyen guisan zuen obra onac eta glorificazayen zuen Aita zoin baitago Ceruetan* (BOEZA, 452)
- (68) *Cola relucitzala ssen arguiac guizonen antzinian, ecusdoquein guisa ssen obra onac eta glorificatzein ssen Aita Ceruietan dagonari edo dagona* (BOEE, 321)
- (69) *Da dote glorioso vat, ceinen medios gueldituco vaita gorpuza padeci eztiron guisan penaric vatre* (BOEA, 322)
- (70) *Yzarbat agueri den guisa / Ylarguiaren aldean, / Distiatuco duzu Se-me / eta Amaren gortean* (BOEA, 323)

-(e)n legez

Gauza bertsua mendebaldeko euskaldunek horren maiz darabilten *-(e)n legez* egiturarekin, darabilten esan-nahiarekin darabiltela, moduzko edo kausazko:

- (71) *Baia dirurik esueles euki, esan'tzen tabernerueri: ...* (Gor, 92)
- (72) *Peruk bere etxeko atia eruan ebales arbolara, au bota eban ónen gañetik* (Gor, 105)
- (73) *...; baye suri estatzules gustetan, ...* (Gor, 114)
- (74) *Esaneroeala legues d. Juan Manuelec ...* (Mik, 26)<sup>24</sup>
- (75) *Ni nax serviduco dodana, dana-aleguez errazoea; ...* (Mik, 27)
- (76) *... quendu bacendu buruco querizgarri, zuben auan sombrilluba derichona, guc quenduten dogun leguez buru-chapela* (Mo, 58)
- (77) *...: onec bilduten dituzan leguez loraric onenac, eztiabia gozoa eguiteco; ...* (Añ, 1802, 3)
- (78) *..., dan leguez iturria bera urez beteric dagoan edontzi baten aldean* (Añ, 1803, 37)
- (79) *...; ta Jesusec emon bailitzuen leguez penitenciaz, ...* (Añ, 1803, 37)
- (80) *..., ta etorri bailitzan leguez Jesus zure viotzera, ...* (Añ, 1803, 38)
- (81) *...: eta onec loraric lora batuten daben leguez ezta ta arguizaguaia abai gozoa eguiteco, ...* (Añ, 1821, 5)
- (82) *Deituten da frutua, bada frutuac urteten daben leguez arbolatic, ...* (Añ, 1897, 199)
- (83) *... ta Jaingoicoaren borondate santua guztian guc eguiteco lurrean, cerutarrac eguiten daben leguez ceruan* (Añ, 1987, 217)
- (84) *...; eta bientzat lain emoten ez eban lez bere izerdiak, ...* (Az, 1888, 382)
- (85) *..., eta arrantsaleari seineroaren keiak adierasoten deutsen lez noiz dagon chonchorroa, ...* (Az, 1888, 383)
- (86) *..., ez euan legez Iaunak izarren ganean egin zerua' bera bakarrik bizi izan dein* (Az, 1889-90, 31)
- (87) *...; ez itzan legez sein-au Ola-Iaunen semea' ez euen bolorik euki ...* (Az, 1889-90, 31)

<sup>23</sup> (15)n jaso dugu *-(e)n lekuan* egituradun adibidea, bera ere fosildua kontsidera litekeena.

<sup>24</sup> Ohargarriki Mikoletak *-(e)la* atzizkia darabil kasuan *-(e)n* atzizkia gabe, segidako (75)ean ez bezala.

**-(e)n moduan/ra**

- (88) ... ordun esan an portoik, plaxe baño, **esate'eban modure gure aittak** (Gor, 103)
- (89) Baña pentzáten dot, neuk e, **aittú doten moruan, nóonorí, esáten e, ori dala, funsionamiènto ba(t) taukola orrek ...** (Lek, 1994, 221)
- (90) ..., ta eranzungo dot nic bere aldodana **igarrico ez deuscuben moduban noc bedeincatuten daben maija** (Mo, 1802, 57)
- (91) Elquiz Maria Santisimaren sabeletic bere virginidadearen dañuric bague, **iguzquiaren rayoa elquitcen den modoan cristale batetarie auts eta ciquindezan bague** (BOEZA, 453)

**-(e)n ondoan**

- (92) ... dembora hartan çiren Jigantak lurraren ganean eta **oragno Iaincoaren semeac nahastatu çiren ondoan guiçonon alabequign** eta heý haurrez erdi çitçaizcoten ondoan; ... (Ur, 10-11)

**-(e)n orduko / an**

- (93) **guerthatuco den orduan estalico dudala hedoyez Lurra**, arcoba aguer-tuco duc hedoyean (Ur, 16)
- (94) ..., **Iaincoac eraman naiën orduan harat hunat**, ... (Ur, 34)
- (95) ..., **ethórri içango naiçen ordúän Israelen Haiürrengana**, ... (Ur, 97)
- (96) ... **Iuntatçen dioën ordúän Aaron Laguntçat** (Ur, 97)
- (97) **Artu nuen orduco asmo ta gogoa arguitaratzeco orain ecusten dezun Libro eusquerazco au**, ... (Mo, 1800, III)
- (98) Bat izaten da muthil nihon den onena, **nausitu den orduco buru gabe dena** (BOEL, 632)

**[-(e)n ezkeru / -(e)nez gero(z-tik)]**

Gauza bertsua gertatuko litzateke hego-iparretako denborazko esaldio-kin, nahiz tartean *-(e)z* atzizki instrumentala ageri (eta esaldiak, berez, erlatibo libre hautsiak izan, eta ez zuzenean sail honetakoak). Hego-mendebaldeko *ezkeru* erabileran, ordea, zeharo fosildua eta ahaztua da instrumental hori. Halako batzuk segidan erakusgarri, batez ere, Gerrikorenetik ekarriak<sup>25</sup>:

- (99) ¿Eta **orain daquizuen ezquero, certan dagoan zuen eguiazco zoriona**; ... (Ge, I, 8)
- (100) **Icasi dezuen ezquero lenagoco dotriña santuan: zuen eguiazco zoriona certan dagoan**: ... (Ge, I, 9)
- (101) **Icusi dezuen ezquero aurreco dotriña bietan, certan dagoan guizon gucien** ... (Ge, I, 17)
- (102) **Aditu dezuen ezquero lenagoco leccioetan Jaungoicoa cer dan**, ... (Ge, I, 65)
- (103) Baña **aitatu ditugun ezquero eren icenaquin iru Aingueru, Eliza Ama Santac berariaz gogoratzen dizquigunac**, ... (Ge, I, 75)
- (104) ...: **daquitzuen ezquero pecatu mortala eguiten duela**, ... (Ge, II, 9)
- (105) **Icusi cenduen ezquero bada aurreco eracusaldian cer dan soberbia**, ... (Ge, II, 31)
- (106) ...; **aren vorondatea edo naya dan ezquero, virtuteari guc jarraitzea**, ... (Ge, II, 88)

<sup>25</sup> Halako lau adibide aurkitu ditut Medikantzako korpusean, zeinetako hiru hautsi –I eranskineko (69, 70, 71)–, eta erlatibo hautsi bezala jaso estatistiketan –ikus aurrerago 4. atala–.

- (107) *Aditzera eman ditugun ezquero pecatuen "sustrayac" ...* (Ge, II, 91)  
 (108) **Aditu cenduen ezquero aurreco dotriña edo leccioan, nola adoratu, ...**  
 (Ge, II, 108)  
 (109) Ceren nere da lembicisortu guztia: **zauritu nituen ezquero lembici**  
*sortu guztia Egiptoco lurretan* (BOEG, 3222)

Ipar-ekialdeko erabileretan artean nabarmena da instrumentalaren presentzia egituran, eta adibide hautsiak, hainbat osagarri emanez *-(e)z gero(z-tik)* osagaien ondotik, ez dira falta, segidako adibideetan ikus litekeen bezala –kasuan Pouvreau, Urte eta Etxeberri Sarakoarenak—<sup>26</sup>:

- (110) ... **bastitu duenas guerostic mundu hau guztia** ... (Pou, 18)  
 (111) Finean, **hil behar dugunas guerostic guztio,** ... (Pou, 24)  
 (112) ..., **iaquin behar litequeyenaz guero noraino hedatzen den Iainco haren beraren botherea** (Pou, 27)  
 (113) ... *Babylonen, ... mihiac bat eguin direnaz guerostic Guiristinoen Eliçan çure laudorioen aippatceco* ... (Pou, 33)  
 (114) ..., *ceronec erran duçunaz guero gende casta guciac, direla guizon,* ... (Pou, 33)  
 (115) ..., **aurkitu dutenaz guero çuri laudorio leguezco eta osso baten emaitceco antcea** (Pou, 34)  
 (116) ..., *hautatua cenaz guero demboretaco eta mendetaco Erreguearen bere baitan hartcera* ... (Pou, 49)  
 (117) ... eta **asqui eritsi eztuenaz gueroztic bere semeac iaunts ceçan gure naturaleça,** ... (Pou, 52)  
 (118) ..., bainan *oraino guiçonaren presuna ohoratu nahi içan duenaz guero haren amaren gainean emaiten çuela harc iasan ceçaqueyen beçambat handiresun eta loria* (Pou, 52)  
 (119) ..., *egua denaz guero erraitea creatura guciac eguin içan direla IESU Christo gatic,* ... (Pou, 56)  
 (120) ... **nahi eztuçunaz guero gauça ber batez baicen,** ... (Pou, 67)  
 (121) ... *gaya denaz guero adoptioneco çucenaz goçatceco* ... (Pou, 71)  
 (122) ..., *gauça ber bat içanen direnaz guero çurequin,* ... (Pou, 75)  
 (123) ... **vtsten enauçunaz guero hori jaquin gabe** ... (Pou, 76)  
 (124) Ordea *atseguin duçunaz guero noizpait berriac ençuteaz,* ... (Pou, 1669, 58)  
 (125) ..., **erraten çuténaz gueroz, eztúçue gutituco** ... (Ur, 101)  
 (126) eçen *Pharaonengana ethorri naicénaz gueróstic hire icénean mintçatçera,* ... (Ur, 101)  
 (127) ... **bertcetatic denazgueroztic haquitz diferenta?** (EtxSa, 12)  
 (128) ..., **haudenaz gueroztican**<sup>27</sup> *gauça bat hain arduraco, eta comundabilana munduco hitzcuntça guztien artean, ecen* ... (EtxSa, 14)  
 (129) ... *nahastacadura hau denazgueroztican çure erranaren eredura gauça bat bequien artean hain naharo, eta arduraco dabilana; eta Escuarac handirozqui higuintcen, eta gaitcerizten duena hala guisaz non* ... (EtxSa, 15)  
 (130) Baina cer diot nic? **hauc direnez gueroztican: Ez choilqui Escual-herri-co, baina oraino arroçoinequin, deit ditezque Espainiaco, Franciaco, ..., eta antipodetaco çuci eta argui biciac?** (EtxSa, 42)  
 (131) ..., eta **guehienac cirenaz gueroztican Erresuma berecoac,** ... (EtxSa, 314)  
 (132) ...; **denaz gueroztican gauça bat hain jaquina,** ... (EtxSa, 318)

<sup>26</sup> Ez dut halako adibide hautsirik aurkitu 1994ko corpusean.

<sup>27</sup> Urkixoren testuan: *haudenaz gueroztican*, baina erratatat dut testuinguruan, eta zuzendu: *haudenaz* ...

### 3. BI CORPUS NAGUSIAK AZTERKETA ESTADISTIKO BATERAKO

Aurreko adibide andanarekin egiaztatua uste dut nola erlatibo hautsiak izan bederen badiren, eta izan diren, euskaraz. Jakiteko geratzen zaigu erlatibo benetan duten pisu eta entitate erreala euskal joskeran barrena, edota anekdotikoak eta testimonialak baino ez ote diren. Puntu honen azterketarako 2 corpus desberdinen arakatzeko sistematikoari ekin diogu. Alde batetik, *1994ko corpusa* deitu duguna; eta bestetik, *Medikantza*-rena.

#### 3.1. 1994ko corpusa

*1994ko corpusa* deitu diot orduan hitz ordenaren estatistika orokorrak egiteko erabili nuen corpusari (Hidalgo, 1994; 1999b). Bertan ahozko hizkerak du pisu nagusia. Denera 4.681 baiezkako esaldi deklaratuak nagusi aztertzen dira eta tarteko menpeko guztiak, erlatiboak barne. Laurden bat baino gutxiago dagoen idatzizko testu klasikoari (1.089 esaldi nagusi), eta beste hiru laurdenak ahozko testigantzei (3.592 esaldi nagusi, zeinetako 2.863 –%80– gaur eguneko zuzeneko testigantzak, eta 729 –%20– XIX. mendeko testigantzak)<sup>28 y 29</sup>.

#### 3.2. Azterketa lagin berria: MEDIKANTZA

Arriskutsua neritzon, erlatiboaren kontuan, soilik 1994ko corpusa aztertzeari. Honen 3/4ak ahozko hizkera izaki, beldur nintzen ez ote nuen bere osotasunean atzemango erlatibozko egituren aberastasuna, ez kopuru aldetik, eta ez hauen dibertsitatean, erlatiboak lotuagoak ageri ohi direlakoan idatzizko testuei (ikus, hala ere, 3.4. atala). Bestalde, 1994ko corpuseko erlatiboaren kopurua kontuan hartzekoa izanda ere (ik 3.3. atala), corpus horretan autore edo hiztun bakoitzak erabilitako erlatibo kopurua oso txikia zen (46 hiztun / autore desberdin).

<sup>28</sup> Zehatzago: 1. Autore klasikoak (600-700 aditz jokatueta zati eten gabeak): P. Axular, *Gero* (1645) XXXI-XXXIV bitarteko kapituluak (1976, 385-409 orr.); J.A. Mogel, *Peru Abarka* (1802) (*Diálogo tercero entre los mismos Maisu Juan y Peru* atal osoa, 91-113 orr., salbu 96-102 orr. bitarteko bertsoak); J.B. Agirre, *Erakusaldiak* (1808) I, *Jesu-Cristoc bere elizari utzi ciozcan, Sacramentuen gañean Eracusaldiak* ataleko azken Amargarren eta Amaicagarren *Eracusaldiak* (80-98 orr.); J.P. Duvoisin, *Laborantzako liburua* (1858), XXV-XXX atalak (112-136 orr., salbu 120-124 orr. bitarteko *Urtheke lanen zerrendatze hutsak*); J. Etxepare, *Buruxkak* (1910), bata bestearen segidako *Kattin, Igande arratsaldetan, Neskato gazteentzat, Sainduaren erran-gurak, Biritxiak eta Lilien usaina* artikulua (51-72 orr.). 2. Ahozko testigantza klasikoaren artean (tamaina bereko zatiak): W. Webster, *Ipuinak* (1877rako jasoak) hasierako *Tartarua, Arroza, Axeria, Basa Jauna, Godeon, Apezak, Sugia eta hiru alabak* eta *Alarguntsa* ipuinak (1-27 orr.); J.F. Cerquand, *Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak* (1874-1885) hasierako ipuinak: *Gogozko otoitza, Orgazainak arroilan, Ibizko hesia, Jinkoaren zorrak, Jinkoak dena ikusten du, Arotza, Sabel bat aski da, Espainia eta pakea, Ama Berginaren ogiak, Euskaldunen karitatea, Bohemienen bost sosa, Jinko eta zazpi-izarrak, Jinko eta ilargia, Zer da ezkontza, Urteak kondatzen, Prisatzalea, Oilo pare, Senar-emazteak, Itasuko Pesta, Itasuko kontseilaria, Astrologoak eta Espainia, Axeriarren maltzurkeriak* eta *Osoaren malurrak* (14-37 orr.). 3. Gaur egungo ahozko testigantzak (hiztun jantzi eta ez hain jantzien artekoak): ETBko *Ados?* programako *Krisia ala hondamendia?* eztabaida saioa (1992-X-5) (osoa, transkribapen propioa); ETBko *Ados?* programako *Eskola legea. Arazoak amaitu? (I eta II)* bi eztabaida saioak (1993-II-22 eta 1993-III-1) (osoa, transkribapen propioa); eta bi euskaltzainen irratiko bi saio labur (J. Haritzelhar -Bilbo Zaharra Euskaltegia, *Eutsi* 1, *Irakaslearen Liburua*, 165-7-, eta J.M. Satrustegi -Euskadi Irratia, 1993-II-18, transkribapen propioa-); baita ere, R.M. Pagolaren (1984) *Euskalkiz Euskalki*-ko testigantzak (osorik). Xehetasun gehiagorako: Hidalgo 1999b.

<sup>29</sup> 1994ko azterketan jada (Hidalgo, 1994), erlatibozko esaldiak sail berezi bezala aztertu nituen, pentsatuz ezaugarri bereziak erakutsi zitzaizkela ordenamendu kontuetan mendeko beste esaldi sailen artean. Orduan, ordea, erlatiboaren artean, soilik kokatu nituen mendeko esaldien beste kategorietan kokatzen ez ziren esaldiak. Eta hala, denborazko, moduzko, edo konparaziozko bezala aztertu nituen zenbait egitura funtsean erlatiboak zirenak. Oraingo honetan, erlatibo "espezializatu" hauek ere kontutan hartu nahi izan ditut (*erlatibo fosildu* bezala aztertu ditut), nahiz horretarako osorik berregin behar izan orduko azterketa. Bestalde, Hidalgo 1994-n ez nuen aukerarik izan erlatiboak luzeraren araberaz aztertzeko, eta oraingoan hau ere egin ahal izan dut.

Nahi nuen 1994ko corpusarentzako kontrasteren bat, eta corpus zabalagoak beti desiragarri diren arren, nire indarren neurrian aukeratu nuen azterketarako M. Aranburu eta M. Bago Agirrek, Gipuzkoako mendebaleko Deba eta Itziarko mediku jaun izanek, 1899. urtean argitaratu zuten *Erriko Jendeentzat Osasun Legeak eta Medikantzako Argibideak* liburuxka (*Medikantza –Med adibideetan–*)<sup>30</sup>. Arrazoi sail batek bultzatu ninduen testuaren aukeratzera<sup>31</sup>.

### 3.3. Bi corpusen tamainaz

Koadroan datuak:

	1994	Medikantza	2 corpusak
Erlatibo ardatz independentedunak	842	1340	2.182
Erlatibo libre, ardatz independenterik gabeak	520	417	937
Denera	1.362	1.757	3.119

Kopuru horiek ahalbideratzen duten alderaketa garrantzitsua da. Emaitzen balioa, berriz, ez da izango, berez, aztertutako corpusena baino haragokoa. Eta betoz aurrerantzean corpus eta azterketa zabalago, orekatuago eta zehatzagoak.

<sup>30</sup> Liburuxkak 1994n izan du argitalpen berria (EEE, Klasikoak), I. Arrigainek prestatua. Hemen-dik eskertu nahi diot testu informatizatuarekin eskaini laguntza, nola honen gaztelaniazko jatorrizko bertsiola eskuratzen. Baita I. Sarasolari ere eskaintza honetan izan bide zuen parteagatik.

<sup>31</sup> Batetik, testua nahikoa mardula izateak (103 orrialde 1994ko argitalpenean; 133 jatorrizkoan). Bestetik, testua hurbilekoa zaigulako erdi eta mendebaldean: Gipuzkeraz idatzia, baina euskararen mendebalde bertan duen inguru batean, eta Iparralde, aldiz, nahikoa urrun, eta urrun, beraz, Iparraldeari erlatiboan kasuan ere aitortzen eta barkatzen ohi zaizkion lizentzien eraginetik. Testua 1899koa izaki, artean ez du erakusten joserka eragin Azkue-Altubetarrrik, data horrez geroztiko hegoaldeko testu gehienetan gertatzen hasiko den bezala joserka postulu antierderistek baldintzatuak, eta balio gabetuak hala nire azterketarako. Testuak ez du ere eragin sabindarrrik erakusten hiztegian, eta larramenditarrik gutxi (cf. Arrigainek liburuari eginiko sarrera, XXI). Testua herrikoia da. «*Euskara jator eta errazean dago idatzia*» (Arrigain, XXI); *Euskalerrria* aldizkariaren inguruan gorpuztutako euskara herrikoia «tradiziotxoan» (Arrigain, XX). Baina: «*Honek ez du esan nahi, haatik, darabilten euskara maila apalekoa denik. ... aipatzeko eta miresteko izanik oso, hainbat hitz eta kontzeptu itzultzeko nolako esapideak erabili dituzten*» (Arrigain, XXI). Euskarazko testua, da, aurretik gaztelaniaz autore berek idatzitako *Manual de Higiene y Medicina Popular*-en itzulpen edo moldaketa, honen alde on eta txar guztiekin. Txar, jatorrizko gaztelaniak beti baldintza dezakeelako euskarazko joserka. Alde on, aurreko testu baten itzulpen edo moldaketa izateak behartzen baititu autoreak aurrez eraikitako gidoi jakin bati jarraitzea, errazkerietatik ihesi. Euskarazko testua, nolana, itzulpen baino gehiago da egokitzapen librea, gaztelaniazko testuaren egile berek askatasun osoz egina. Hala dio Arrigainek (XVIII): «*Euskarazko atalari dagokiolarik, ... laburragoa da. Beren helburua Euskal Herriko jende xeheak ahalik eta hobekien uler ditzan liburuan ematen diren argibide eta aholkuak izanik, ez dute erdaratiko hitzez hitzeko itzulpenik egiten, baizik eta gaztelaniazko testuaren nolabaiteko zientifismo-kutsuari ihes-eginez, maila nabarmenki apalago batean kokatzen dute beren azalpena. Baina apaltasunez ari garenean, kontzeptuez eta gaien tajukeraz ari gara, eta ez inolaz ere darabilten euskara mailaz, idazti honen baliorik handiena baitatza, gure ustez, jatoritasunari uko egin gabe, teknizismo askoren itzulpenari eman dioten irtenbidean.*» Testuak darabilen euskara maila garaiaz jabetzeko, nahikoa bedi jakitea sarreran eta lehenengo bi ataletan darabiltzan 100 esaldi nagusietatik -beste 4 ere bai *ba-* aurrizkidunak, 93 direla 5 osagarri edo gehiagokoak (%93,0). Proporzio hau 1994ko corpusean, batez beste, %51,0koa da -%58,2 idazle klasikoan artean; %68,5 Axularrengan; %68,4 Agirre Asteasukoagan-. Bestalde Medikantzako testuan %193,2 mendeko esaldi ageri dira aditz jokatu bidezko esaldi nagusi bakoitzeko, 1994ko corpusean, batez beste, %52,0 ageri diren bitartean. Aditz jokatu gabe bidezko mendeko esaldiak, berriz, %164,1 dira Medikantzan, eta %39,3 1994ko corpusean. Ezin uka testuaren aberastasuna. Testua oso aditz zurteratu zalea da, lotua, noski, esaldien aipatu luzera eta aberastasunekin, eta aurreratze honek ematen dizkio Arrigainek aipatu herrikoitasun, jatoritasun eta erraztasunak, bestelakoan lortzen oso gaitzak lirakeenak horren esaldi luze eta konplexuko testu batean. Bi ohar, amaitzeko, testuko erlatiboak dagokienean. Bata, Arrigainek jaso bezala (XXIII-XXIV), testuak era guztietako erlatiboak erabiltzen ditu (salbu, gaur egun ekialdeko diren BAIT- erlatiboak). Bestetik, erlatiboan ugaritasuna, menpeko esaldiena bezala, oso handia da testuan (ik 3.4. atala).

### 3.4. Egitura erlatiboen maiztasunaz euskaraz

Bada euskararen inguru uste zabaldua, beharbada ustela ez dena, eta dioena, euskaraz egitura erlatibo gutxiago erabili ohi dela inguruko bi hizkuntza nagusietan baino<sup>32</sup>. Nik ez dut halako azterketa konparatiborik egin ahal izan hizkuntzon artean. Baina bai euskararen barrena.

Eta datuekin esan nezake, nola euskaraz ere alde biziki handiak gerta litezkeen erabilera eta testigantza batzuetatik besteetara. Ez dirudi euskarak jokamolde bakarra duenik alor honetan ere. 1994ko corpus, batez ere, ahozkoan, Hidalgo 1994-n, 1.104 erlatiboazko esaldi aztertzen nituen 4.488 esaldi nagusiren artean bildutakoak<sup>33</sup>. Batez beste, beraz, 24,6 esaldi erlatibo ehun esaldi nagusiko. 1994ko corpus honetako idazle klasikoan artean, hala ere, –Axular, J.A. Mogel, J.B. Agirre, Duvoisin eta J. Etxepare–, zer edo zer altu-xeagoa zen proportzio hau: %37,6. Axularren testuak, %60,0 ere bai. Ahozko testigantzei dagokienean, oso datu desberdinak eskuratzen dira hizketaldi jantzi eta apalen artean. Krisi ekonomikoari buruzko ETBko zuzeneko eztabaidan %23,4 da, batez beste, erlatiboen proportzioa; baina askoz altuagoa zenbait hiztunengan: %63,6 J.M. Juaristik, edota %70,8 J.C. Alduncinek. Eskola Legearen eztabaidan, batez beste, %34,2 da proportzioa. Hizketaldi apalagoetan, proportzioek behera egiten dute nabarmen. R.M. Pagolaren *Euskalkiz euskalki* bilduman, batez beste, %10,0koa da. Cerquanden kontatera bilduman %9,2koa. Eta Webster-en bilduman, berriz, %2,2koa baino ez.

1994n corpus nagusi honezaz gainera azertu nituen Mendibururen 1747 eta 1760ko itzulpenak ere, zeinetan erlatiboen proportzioa %94,4ra igotzen den, eta gaur eguneko prosa idatzi estandarreko corpora –A. Lertxundi; *E. Egunkaria* eta *Argia*-ko laginak– non %35,2koa den proportzioa. Medikantzaren, berriz, izugarri handiagoa da: %202,9. Datuak koadroan:

Testuak	Erlat. %
• 1994ko corpora (batez beste):	24,6
• Idazle klasikoak (batez beste):	37,6
• Axular:	60,0
• Krisiaren zuzeneko eztabaida	23,4
• J.M. Juaristi:	63,6
• J.C. Alduncin:	70,8
• Hezkuntza Legearen eztabaida:	34,2
• Euskalkiz euskalki bilduma:	10,0
• Cerquanden ipuin bilduma:	9,2
• Webster-en ipuin bilduma:	2,2
• Mendibururen itzulpenak:	94,4
• Gaur eguneko prosa idatzia:	35,2
• Medikantzako dibulgazio testua:	202,9

<sup>32</sup> Gaztelania eta frantsesa, gainera, hizkuntza *anpulosoak* lirateke erlatiboen eta erlatibo kateen erabileran, beste hainbat hizkuntzaren aldean ere, hala nola, gaur eguneko ingelesa.

<sup>33</sup> Aipatu bezala, orduan ez nituen erlatiboen artean kontatu, beste kategoria gramatikalen batean kokatu zitezkeen egiturak –denborazko, moduzko, konparaziozko–, nahiz hauek ere oinarrian erlatibo bidez osatuak izan. Corpus guztietan jokatu zen hala, eta datuek begi bistan uzten dituzte testuen arteko desberdintasunak. Atal honetan emandako *Medikantza*-ko datuetarako ere berdin jokatu dut.

Datuon bistara, komeni litzateke sakontzea erlatiboen inguruko jokamolde desberdinen inguru, estatistikoki eta kasuistika zehatzetan, inguruko hizkuntzekin ere konparatu ahal izateko.


#### 4. ERLATIBO HAUTSIAK BI CORPUS NAGUSIETAN

Azterketa honetan, soilik hartu ditut kontutan ardatz independentearen ezkerretik, modu arruntean edo, hasitako erlatibo jokatuak, eta aditz jokatuaz gainera beste osagairen bat ere erakusten dutenak<sup>34</sup>: 512 1994ko corpusean eta 803 Medikantzan. Hauetako 34 ematen dira hautsi 1994ko corpusean (esaldien %6,6), eta 71 Medikantzan (%8,8). Batez beste, osagarriren bat duten erlatibozko esaldi arrunt guztien %8,0. Ez da gutxi. Datuak koadroan:

	1994		Medikantza		2 corpusak	
	<i>Kopur.</i>	%	<i>Kopur.</i>	%	<i>Kopur.</i>	%
Erlatibo arrunt osagarridunak	512	100%	803	100%	1315	100%
Erlatibo hautsi gabeak	478	93,4	732	91,2	1210	92,0
Erlatibo hautsiak	34	6,6	71	8,8	105	8,0

Erlatibo hautsi bat, beraz, 12/13 erlatibo arrunteko. 1994ko corpusean 15 erlatiboko 1. Medikantzan 12 erlatiboko 1 hautsia. Gaztaren zati txiki bat (kasuak I eranskinen).

Erlatibo hautsiak 2 corpusen artean



#### 4.1. Erlatibo hautsiak esaldien luzeraren arabera

Bi corpusetan ondo jakingarria gertatzen da erlatibo hautsien pisuaren bilakaera erlatibook luzera eta konplexutasuna irabazten doazen heinean (“osagaika” neurtu dut luzera hau)<sup>35</sup>. Hala:

<sup>34</sup> Alde bat utzita, beraz: 1. Erlatibo libreak; 2. Osorik ardatzaren eskuinetik emandakoak; 3. Aditz jokatu gabe bidezkoak; eta 4. Aditza beste osagairik erakusten ez dutenak.

<sup>35</sup> Eta “osagaitzat” eman dut esaldi bakoitzeko sintagma minimoetako bakoitza *-(r)en*, *-(e)ko* izenlagunak barne). Baita juntagailu bidez koordinatutako sintagmetako bakoitza ere (*gizon handi eta ausartak* sintagmak bi “osagai” litzuzke; koordinazio gabeko *gizon handi ausartak* bakarra). Mendeko esaldietan gainera, aditza ere, dagokion erlazio atzizkiarekin, osagaitzat hartu dut. *Osagai*-aren nozio hau, luzeraren nolabaiteko unitate neurgarri bezala erabili dut. Osagaikako azterketan sail bere batean bildu ditut 5 edo osagai gehiagoko esaldiak -5 (edo +)-.

1994ko corpusa

	Denera		Hautsigabeak		Hautsiak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Osagai 1	279	54,5	274	98,2	5	1,8
2 osagai	137	26,8	130	94,9	7	5,1
3 osagai	53	10,4	46	86,8	7	13,2
4 osagai	17	3,3	10	58,8	7	41,2
5 (edo +)	26	5,1	18	69,2	8	30,8
Denera:	512	100%	478	93,4	34	6,6


Medikantza

	Denera		Hautsigabeak		Hautsiak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Osagai 1	306	38,1	301	98,4	5	1,6
2 osagai	281	35,0	276	98,2	5	1,8
3 osagai	81	10,1	69	85,2	12	14,8
4 osagai	41	5,1	35	85,4	6	14,6
5 (edo +)	94	11,7	51	54,3	43	45,7
Denera:	803	100%	732	91,2	71	8,8

2 corpusen artekoa

	Denera		Hautsigabeak		Hautsiak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Osagai 1	585	44,5	575	98,3	10	1,7
2 osagai	418	31,8	406	97,1	12	2,9
3 osagai	134	10,2	115	85,8	19	14,2
4 osagai	58	4,4	45	77,6	13	22,4
5 (edo +)	120	9,1	69	57,5	51	42,5
Denera:	1.315	100%	1.210	92,0	105	8,0

Erlatibo hautsiak osagaika 2 corpusen artean





Datuon aurrean azpimarragarria da nola inoiz aurki litezkeen erlatibo hautsiak oso esaldi laburren artean ere (osagai bakarreko  $-1,7\%$  edo bikoien artean  $-2,9\%$  batez besteko datuetan). Baina batez ere azpimarratu behar nola erlatibo hautsien proportzioa oso era esanguratsuan puzten den esaldiek luzera irabazi ahala. 3 osagaikoen artean,  $14,2\%$  dira batez beste. Eta 4koen artean  $22,4\%$ . Baina 5 edo gehiagokoen artean  $42,5\%$  dira jada hautsiak. Ia guztien erdiak (120 erlatibotatik 51;  $45,7\%$  Medikantzan), eta horrek behar du izan esanahirik. Bestalde oso kontuan hargarria da bi corpusetako datuak ez direla elkarren oso desberdinak (1994koan 4 osagaikoen artean 10etik 7 dira hautsi  $-41,2\%$ , nahiz 5 (edo +)koen artean 18tik 8 baino ez  $-30,8\%$ ). Denera 58 erlatibo hautsi arrunt, eta 47 egitura fosilduen artean (I eranskinen).

Halako erlatiboen artekoak dira segidako ondo laburrak (I eranskinetik ekarriak)<sup>36</sup>:

- (133) 72. (1) Hori lotsagarri bat da, **daon situaziñoa** *Euskadin* (KK, 43)
- (134) 2. (1)..., eta oztuta itxasoan sartzea dan gauza txit arraxku aundikoa **etorri litezken kalteak gatik** *osasunerako* (Med, 2262, 101)
- (135) 3. (2) **Esan ditugun gauza oekin** *garbitasunaren gañean*, uste degu naikoa dala ... (Med, 557, 28)
- (136) 5. (2) **Lendabiziko eduki bear dan gauza bat gogoan** da, onena dala naiz amarentzat eta naiz ume jaioberriarentzat ... (Med, 1885, 85)
- (137) 4. (2) Azkenik, **ezur autsiak ateratzen duan krakarakoa mugitzen danean** da askoz aundiagoa eta igarten errazagoa aterearena baño; ... (Med, 1704, 79)
- (138) 12. (3) **Lendabiziko kontuan eduki bear dan gauza berako onetan** da, umeak artutzen duan esne edo bularrari dagozkionak ... (Med, 2082, 94)

Antzeko erlatibo hautsi laburrak aurki genitzake erlatibo fosilduen artean ere (I eransk.):

- (139) 94. (1) Ta nik esango nuke ipini duela ...: situazio larri batean gaude, ta ipini digula “economia de guerra” **esaten den bezela erderaz** (KR, 196)
- (140) 37. (1) Bañan naiz eta zerbait ajiatu bañan osoro galdutzen ez dala gelditutzen bada burua **oi dan bezela perlesiarekin**, orduan gelditutzen dira ere erdi illik ... (Med, 1494, 70)
- (141) 38. (1) Orain esan bear degu itxasoko bañuak erremediotzat ematen dirala geienenbat, izendatzera goazen izate edo gorputz aldietan; lendabizikoa, berez odol bigunekoak **esan oi dan bezela dirala** diranai, batezere gazte jendeari; bigarren, ... (Med, 2153, 97)
- (142) 39. (1) ..., itxaz baztarrean ibilltzearekin bakarrik arkitutzen dute beren osasunerako erremediorik onena baterere bañurik artu gabetanik, **ikusten dan bezela askotan** (Med, 2171, 98)

#### 4.2. Erlatibozko egitura gramatikal fosilduak edo

Duda gabeko eragina du erlatibozko esaldiaren luzerak honen osagaien bat edo batzuk ardatzaren eskuinetik emateko aukerarekin. Baina badirudi

<sup>36</sup> Parentesiaren ondorengo zenbakia, esaldiaren eranskineko zenbakia da. Justu adibidearen aurreko parentesi arteko zenbakiak, berriz (1etik 5erakoak), erlatibozko esaldiari zenbatu diodan osagai kopurua adieraziko du.

halako aukera batean beste zenbait fenomenok ere badutela eraginik, nola aipatu erlatibo gramatikal fosilduen fenomenoak, edo eta ezezko polaritatea erakusten duten haienak (ik. 4.3). Erlatibo arruntak baino erraztasun handiagoa erakusten dute hautsiak agertzeko erlatibo fosilduek (mendeko beste esaldi mota batzuk osatzeko erabiliak: moduzko, denborazko edo konparaziozko esaldiak)<sup>37</sup>.

#### 4.2.1. Erlatibo fosilduak Medikantzan


Segidan Medikantzako corpusean hautsirik ageri zaigun egitura bakoitze-ko adibide bana *-(e)n bezala...*; *-(e)n bezain laster*; *-(e)n medioz*; *-(e)n arte...*; *-(e)n bitarte...*; *-(e)n ezker*o; guztiak I eranskinean: 37-71 adibideak):

- (143) 40. (2) Ez degu uste era berean, zenbait kanpoko parajeetan usariyo dan bezela, eman bear dirala busti aldiak iturriko ur otzarekin bada au gogorra derizkiogu eta gañera ez da gauza ezereren erreparo eta arraxkurik gabe egin litekeana **gertatzen dan bezela beste aldera bañu epelakin** (715, 35)
- (144) 65. (3) Medikuak beren aldetik eman bear diote aditzera agintariai **azaldutzen dan bezin laister esandako gaitz pegakorren bat**, artutzeko bear diran neurriak berari alde egiteko; ... (476, 26)
- (145) 68. (4) ...; eta *oek zer eta nola diran medioz aldi batzuetan*, era berean sortutzen dituztela gaitz gutxi edo geiago (104a, 10)
- (146) 58. (5) ..., bañan beti negu aldera berritzen zaiote beren gaitza eta pixka banaka joaten dira bigunduaz *azkenik gaitzak menderatzen dituan artean biriketan eta biotzean egiten dituan ajeen bitartez* (1123, 54)
- (147) 62. (5) Onezaz gañera ez dira gaizki etortzen ipintzea sabelean lina-zizko enplastoak eta ematea ere este garbigarriak malmen urarekin edo almidoe eta arrautza zuringoa nastutakoakin, **medikuak agintzen dituan bitartean beste berari derizkion erremedioak zeñetarako ots-egin bear zaion denborarik galdu gabe onelako gaxoetan** (2090, 94)
- (148) 70. (5) *Esanik utzi degun ezker*o itz labur oetan zer diran medikantzak eta erremedioak, goazen ikustera zer diran osasuna galdu gabe edukitzeko kontuan eduki bear diran egitekoak, ... (150, 11)

Batez beste %8,0 erlatibo aurkitzen genituen hautsi 2 corpusen artean (%8,8 Medikantzan) izen ardatzaren ezkerretik abiatutako erlatiboen artean. Egitura fosilduon artean, berriz, hautsien proportzioa %27,3koa da. *-(e)n bezela(ko...)* egituraren kasuan, erabiliena 88 agerraldirekin, proportzioa %23,9koa da. Datuak segidako grafiko eta tauletan:

<sup>37</sup> Zenbaitetan esaldion ardatzaren independentzia lexikala ez da batere garbia (*bezala* kasu).

Erlatibo fosilduak Medikantzan




	Dener.		Hautsigabeak		Hautsiak	
	Kopur.	Kopur.	%	Kopur.	%	
-(e)n aiñbat	2	2	100,0	0	0,0	
-(e)n arte(an)	4	0	0,0	4	100,0	
-(e)n baña	7	7	100,0	0	0,0	
-(e)n bitartean	14	11	78,6	3	21,4	
-(e)n bezela(ko)	88	67	76,1	21	23,9	
-(e)n beziñ	7	4	57,1	3	42,9	
-(e)n ezker	4	1	25,0	3	75,0	
-(e)n medioz	2	1	50,0	1	50,0	
Denera:	128	93	72,7	35	27,3	

Fosildutzat jo ditugun 128 esaldiok alde bat utzita -beren 35 hautsiekin, Medikantzan beste 36 erlatibo hautsi ditugu 675 esaldiren artean: %5,3. 20 esalditik batek baino gehixeagok erakuts ditzake osagaiak izen ardatz arruntaren ondoretik, proportzio ez mesprezagarria, baina urruti geratzen dena erlatibo fosilduen arteko %27,3 horretatik.

#### 4.2.1.1. Erlatibo fosilduak esaldi luzeraren arabera

Egitura fosilduen kasuan ere, zerikusi handia du erlatibozko esaldiaren luzerak hau hautsia emateko aukerarekin. Hori baieztatu dugu *-(e)n bezela(ko...)* egituraren kasuan, corpuseko ugari bakarra<sup>38</sup>. Hau osagaika aztertuz, segidako grafiko eta taulak ditugu (beti ere Medikantzan):

Erlatibo fosilduak osagaika Medikantzan



<sup>38</sup> Nahiz 4 osagaiko esaldiak 3 bakarrik izan eta hirurak hautsi gabeak.


	Denera		Hautsigabeak		Hautsiak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Osagai 1	40	45,5	37	92,5	3	7,5
2 osagai	20	22,7	18	90,0	2	10,0
3 osagai	7	8,0	5	71,4	2	28,6
4 osagai	3	3,4	3	100,0	0	0,0
5 (edo +)	18	20,5	4	22,2	14	77,8
Denera:	88	100%	67	76,1	21	23,9

Kopuruak txikiak izaki, ezin datuak erabatekotzat eman. Baina joera nabaria da. Hainbeste, non *-(e)n bezala(ko...)* egituraren 5 edo osagai gehiagoko esaldien artean ia 10etik 8 ematen den hautsi  $\sim$ 77,8% (erlatibo guztien artean %45,7 Medikantzan eta %42,5 2 corpusen artean).

#### 4.2.2. *-(e)n legez* egitura 1994ko corpusean

Kurioski, 1994ko corpusean, *-(e)n bezala(ko...)* egitura erlatiboetan soilik %6,8 ematen da hautsi (1 erans. 94-96ko 3 adibideak). Aldiz, *-(e)n legez* egitura erlatiboaren bidezko esaldietan (soilik mendebaleko hiztunek erabilia  $\sim$ gure corpusean Mogelek eta *Euskalkiz Euskalki* saileko hiztun bizkaitarrek $\sim$ ), egitura hautsiak dira erdiak. Hurrengo grafiko eta taulan erakutsi bezala:

*-(e)n legez* egitura hautsia 1994ko corpusean



	Dener.	Hautsigabeak		Hautsiak	
	Kopur.	Kopur.	%	Kopur.	%
<i>-(e)n bezala(ko)</i>	44	41	93,2	3	6,8
<i>-(e)n legez</i>	18	9	50,0	9	50,0

Kopuruak murrizak dira ondorio automatikoetarako, baina aipatu behar *-(e)n legez* egituraren bidez emaniko 9 erlatibo hautsiak nahiko laburrak dira (2 osagai bakarreko; 3 biko; 1 hiruko; eta 3 lau), segidakoen itxura-koak (adibide guztiak I eranskinen: 97-105 adibideak):

- (149) 97. (2) ...; lurretan isaten da, *aldasberan dausen les soluek*, lurre berantzetoroten da; ... (EEM, 42)
- (150) 98. (2) Bueno, da, *bixok, ibil gintzen les an*, gero ba, ... (EEM, 141)


- (151) 100. (3) **Bedeincatu dogun leguez maija jan aurrian**, emon daijogu-  
zan esquerrac Jangoicuari (Mo, 680, 113)

1994ko corpusean, erlatibo hautsien batez besteko proportzioa %6,6koa bada ere (34 esaldi hautsi 512 erlatibotatik), *-(e)n bezala(ko...)* eta *-(e)n legez* egiturak bazter, 22 erlatibo hautsi aurkitzen ditugu 450 erlatibo arrunten artean, guztien %4,9.

#### 4.3. Ezezko erlatibo hautsiak

Ez dira bi corpus nagusietan ezezko erlatiboen kopuru esanguratsuegiak ageri, baina hauek aztertuz eskuratu datuak batez bestekoak baino zertxobait altuagoak dira 1994ko corpusean (%9,4, batez besteko %6,6ren aldean); eta Medikantzan, berriz, nahikoa altuagoak (%40,0, batez besteko %8,8ren aldean), beti kopuru txikiekin jokatzten. Datuak segidako grafiko eta tauletan:

*-(e)n legez* egitura hautsia 1994ko corpusean



	Dener.		Hautsigabeak		Hautsiak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
1994ko corpusa:	32	90,6	29	90,6	3	9,4
Medikantza:	15	60,0	9	60,0	6	40,0
2 corpusen artean:	47	80,9	38	80,9	9	19,1

Adibide batzuk segidan:

- (152) 34. (3) ..., bai eta ere da egia *gure guraso zarrak ezagutzen ez zituzten gauzarik askok osasunarako* eta egunero egun egiten diran aurreratzeak jakiñkizun artarakoetan, gaurko egunean alaitutzen dutela gure izaera, ... (Med, 324, 20)
- (153) 35. (5) ..., oraindik bera ezer argitaratu gabe dagoan denbora bitartea; au da, *osasunean mudantzarik igertzen ez duan denbora naiz eta gaitzez kutsutua norbait egon*; ... (Med, 765, 38)
- (154) 36. (5) Orain esaten ditugun odol-bildu oek sortutzen badira gorputzeko zañik txikirik eta estuenian eta an galdutzen bada odola *gauza ez dan moduan gorputzeko zatiak mantentzeko eta oei bear duten bizitasuna emateko*, orduan au gertatzen dan toki artan sortutzen da aundi-dura deritzen diogun izatea (Med, 1466, 68)

Baita egitura fosilduen artean ere (ik. I eranskinean 64, 104 eta 105 adibideak ere):

- (155) 57. (3) ..., bizi dira lan gogorren azpian eta oen garunak eta oen zaiñ zuriak daude geldirik, **gertatzen ez dan bezela** *beste onenbeste zaiñ gorri eta biotzarekin*, bada oek ... (Med, 1540, 72)
- (156) 63. (5) **Egiten ez diran bitartean** *baserri etxeak bear bezela, bertako bizilagunak eta ganaduak bata besteagandik urrutiago egunez eta gabaz egoten dirala*; ... (Med, 648, 33)
- (157) 103. (1) ..., batzuk, igual seniden batzuk euko sittuesan, baie **esekixien les nortzuk**, ... (EEG, 46)

Uler liteke ezezko erlatiboek joera handiagoa erakustea hautsita agertze-ko baiezkoek baino, ezezko esaldiek berez dutenez joera esaldi aurrealdean erakusteko *ez* partikula eta honi bigarren elementu bezala erantsitako aditz jokatuak. Hala gertatzen bide da esaldi nagusietan (ez dut datu zehatzik, baina hori da nire intuizioa), eta hala gertatzen da mendeko esaldi jokatuetaan ere, hauek baiezkoek baino askoz ere joera handiagoa erakusten dutelarik hautsiak agertzeko (baiezkoen artean %47,9 hautsi; ezezkoen artean %81,7 (Hidalgo, 1994)). Erlatiboetan ere antzeko zerbait gerta liteke, aztertu kopuruak txikiak diren arren generalizazio automatikoetarako.

## 5. NOIZ ERABILI OHI DIRA ERLATIBO HAUTSIAK? ESKUINERATUTAKO OSAGAIEN LUZERA ETA KONPLEXUTASUNAZ

Erlatibo hautsiak zer edo zer nabarmenago aurkitu ditugu erlatibo luze, erlatibo gramatikal fosildu, eta ezezko erlatiboen artean, nahiz hauek proportzio esanguratsuetan aurkitu bestelako erlatibo arrunten artean ere. Argitu behar, ordea, noiz, nola eta zein baldintzatan sentitu ohi den euskal hiztuna, idazlea, zilegiztatua erlatibo hautsiak erabiltzeko, edota hauek erabili beharrean.

Nire erantzun saiakerak badu zerikusia erlatiboetako esaldion ardatzaren ondorengo osagaiak erakutsi ohi duten pisu, luzera edo trinkotasunarekin. Nire ustea da, erlatiboetako esaldien haustura askoz maizago gertatzen dela, eta batez ere ez hain modu traumatikoan, ardatzaren ondoko osagaiak sintagma trinkoak-edo direnean, luze edo konplexuak, eta oso bereziki, mendeko esaldi osoak, jokatu edo jokatu gabeak (hala moduzkoak dira gure klasikoetatik ekarritako adibide gehienak (1-13)). Aldiz, *ez* dira hain arruntak ardatzaren eskuinera hitz solte laburrak dituztenak (nahiz halakoak ere badiren, eta areago aho hizkuntzan). Hala, Euskaltzaindiaren txostenak 2.2.5. atalean (184 or.) zuhur ematen du “*moldegaizki eratutzat*” hango (22b) esaldia (22a)ren aldean (segidan jasoak, hango zalantza-gaitzespen ikur berekin):

- (158) (22a) Ongi ezagutzen dituzu *goizean kalean ikusi ditudan haurrak*  
 (159) (22b) ??/\* Ongi ezagutzen dituzu *goizean ikusi ditugun haurrak kalean*

Ez da zalantzarik lehen esaldiaren onargarritasuna bigarrenarena baino mila aldiz handiagoa denez. Eta ordea, ikusi ditugu antzeko esaldiak, 3 silaba eskaseko osagaiak emanez ardatzaren eskuinetik (133, 136, 22 adibideetan esateko, hemen errepikatuak):

- (160) 72. (1) Hori lotsagarri bat da, **daon situaziñoa** *Euskadin* (KK, 43)

- (161) 5. (2) *Lendabiziko eduki bear dan gauza bat gogoan* da, onena dala naiz amarentzat eta naiz ume jaioberriarentzat ... (Med, 1885, 85)
- (162) (Ipar Euskal Herriak ez omen du historiarik. Egia da?) Ziur ezetz. **Karrakatzen den puntutik azala**, ikusten da historiaurreko aztarnetarik hasirik berriki arte historiaren partaide izan dela, ... (L. Etxezaharreta, *EEg*, 1997-XII-14, 40)

Halako adibideetan ardatzaren ondotik emaniko osagaiaren ahulezia edo pisu faltak eragiten du onargarritasun arazo berezia<sup>39</sup>. Nire ustea da, eskuineratutako osagaiek intonazio unitate beregain bat osatu behar/ohi dutela, horretarako masa kritiko minimo bat behar izaki, ohituraz bi/hiru silaba baino handixeagoa. Hiru esaldi horiek, nola Euskaltzaindikoak, erraz irabazten dute onargarritasuna, eskuineratutako osagaiek pisua, luzera edo trinkotasuna irabazi bezala. Hala, ez dute izango onargarritasun maila bera Euskaltzaindiak gaitzetsitako esaldiak, eta nik haren gainean eratutako ondorengoek (asoz onargarriagoak nire ustean):

- (163) (22b) ??/\* Ongi ezagutzen dituzu *goizean ikusi ditugun haurrak kalean*
- (164) Ongi ezagutzen dituzu *goizean ikusi ditugun haurrak zure etxeko bidean ginela*
- (165) Ongi ezagutzen dituzu *goizean ikusi ditugun haurrak kalean gosaltzen ari ginen bitartean*
- (166) Ongi ezagutzen dituzu *goizean ikusi ditugun haurrak zu bizi zaren kale horretan*

Halako erlatiboak modu kanonikoan emanda, aldiz, dislokazio arazoak eragiten hasiko dira. *Goizean ikusi ditugun haurrak* sintagmak 9-11 silaba dituzte ahoskeren arabera eta intonazio unitate bat edo bi osa ohi litzake. *Haurrak* osagaiaren distantzia gobernatzen duen *ezagutzen dituzu* aditzarekiko ez da ikaragarria, nahiz baden. Distantzia horri erantsiz gero eskuineratutako osagaien luzera (beste 9-14 silaba) 167-169 adibideetan bezala, dislokazio arazoak areagotu egiten dira, eta horregatik esaldiok ere gaitzetsi gabe, hiztunak, idazleak, erosoagotzat, ulergarriagotzat eman lezake zenbaitetan erlatiboazko egitura hautsia kanonikoa baino.

- (167) Ongi ezagutzen dituzu *goizean zure etxeko bidean ginela ikusi ditugun haurrak*
- (168) Ongi ezagutzen dituzu *goizean kalean gosaltzen ari ginen bitartean ikusi ditugun haurrak*
- (169) Ongi ezagutzen dituzu *goizean zu bizi zaren kale horretan ikusi ditugun haurrak*

Kontuak garbiago ikus litezke segidako adibideetan. (170)ko bikotean erraza da ez-onargarritasun ikurra eranstea (b) esaldiari, *hori* bezalako osagai ahul eta labor bat eskuineratuz.

- (170) a. Ez dauka etorkizunik *hori* esaten duen politikoak  
 b. \* Ez dauka etorkizunik esaten duen politikoak *hori*

<sup>39</sup> Nahiz hauen artean badiren onargarritasun maila desberdinak. Eta hala nahikoa bitxiagoa dirudi *gogoan* osagaiaren eskuineratzea (161)en, (160)ko *Euskadin* osagaiarena baino, edo (162)ko *azala*rena baino. Bitxitasun erantsi hori, nolana, *gogoan eduki* ohiko perifrasiaren hausturak eragina izan liteke, eta esaldia beharbada beste bien antzekoagoa gertatu osagaien ordena aldatuz gero: *Gogoan eduki bear den gauza bat lendabiziko* da, ...

Aldiz, (171) bikotean egoera aldatzen da. (a)ren ulergarritasun mailak behera egiten du 24 silabako osagai luzea tartekatua. (b)k, berriz, erabilgarritasun ukaezina irabazten du bere bitxian (bi esaldiak balizko intonazio / informazio unitateen mugak adierazita (/)):

- (171) a. Ez dauka etorkizunik (/) *berak ezin dituela (/) hiritarren arazoak (/) behar bezala konpondu (/) esaten duen politikoak*  
 b. Ez dauka etorkizunik (/) *esaten duen politikoak (/) berak ezin dituela (/) hiritarren arazoak (/) behar bezala konpondu*

Nabarmenagoa da kontraste hori erlatiboazko esaldia egitura gramatikal fosildua izanda. (172b) onargaitza da, aldiz (173b)k arrunta dirudi (eta (173a) ulergaitzagoa bere luzeran):

- (172) a. Ez dauka etorkizunik *hori esaten duen momentutik*  
 b. ??/\* Ez dauka etorkizunik *esaten duen momentutik hori*  
 (173) a. Ez dauka etorkizunik (/) *berak ezin dituela (/) hiritarren arazoak (/) behar bezala konpondu (/) esaten duen momentutik*  
 b. Ez dauka etorkizunik (/) *esaten duen momentutik (/) berak ezin dituela (/) hiritarren arazoak (/) behar bezala konpondu*

Erlatibo hautsien onargarritasun maila igoko da eskuineratutako osagaiak gorputza irabazi ahala, luze izan beharrik gabe ere. Hala, esateko, Medikantzako adibideotan:

- (174) 2. (1)..., eta oztuta itxasoan sartzea dan gauza txit arraxku aundikoa **etorri litezken kalteak gatik osasunerako** (Med, 2262, 101)  
 (175) 12. (3) *Lendabiziko kontuan eduki bear dan gauza berako onetan* da, umeak artutzen duan esne edo bularrari dagozkionak ... (Med, 2082, 94)  
 (176) 4. (2) Azkenik, *ezur autsiak ateratzen duan krakarakoa mugitzen danean* da askoz aundiagoa eta igarten errazagoa aterearena baño; ... (Med, 1704, 79)

non, eskuineratutako osagaiek (*osasunerako*, *berako onetan* eta *mugitzen danean* –6na silaba–), beren laburrean baduten “gorputz” bat. Beste hainbeste bi corpusetako esaldiotan:

- (177) 73. (1) Gustatzen zaizkit, ..., zait, egiten ari diren lana; **egiten duten ahalegina euskalduntzeko**; ... (ELZ, 126)  
 (178) 79. (3) Eta *orain daukagun panorama 10 urte pasata*, ... (ELB, 256)  
 (179) 3. (2) **Esan ditugun gauza oekin garbitasunaren gañean**, uste degu naikoa dala ... (Med, 557, 28)

Baita goiko Añibarro, Haritxelhar edo X. Gurrutxagaren adibideetan ere, *Arantzazun* (4 sil.), *Ansoni buruz* (5 sil.), edo *arima on bati* (6 sil.) bezalako osagai laburrekin:

- (180) Sabeleco fruitua ta semeac euquitea da, *Jaungoicoac emoten deusan saria, senipartea, erentsia ta mesedea arima on bati* (P. Añibarro, 1879, 201)  
 (181) Mitxelenak pozik ikusten zuen zein bidetan sartuak ginen, eta guk segitzen dugu *Mitxelenak urratu zuen bidea Arantzazun* (J. Haritxelhar, Euskaltzainburu, 1998)  
 (182) Ikusirik *orain Arzallusek egin dituen adierazpenak Ansoni buruz*, ... (X. Gurrutxaga, politikari, 1998)



Zer esanik ez, zenbat eta osagai luze, pisu eta konplexuagoak eman ardatzaren eskuinetik, hausturaren naturaltasunak graduak irabaziko ditu neurri berean. Eta zenbaitetan hori izan liteke irtenbide hobea idazlearentzat, erlatibozko esaldi ezin luzeagoak osorik ematea baino ardatzaren aurretik. Hitz solte bakanak ardatzaren eskuinetik emanak, arruntagoak dira ahozko hizkeran bat-bateko komunikazioaren premiak-edo eraginda<sup>40</sup>. Hori gertatzen da maiz *-(e)n legez* egiturarekin mendebaldean. Eta beste hainbatean ere, nola adierazi lezakeen I. Caminok (1997, 477) biltzen duen Aezkoako segidako erlatibo hautsi bitxiak (*lapsus linguae*-tik hurbil beharbada):

(183) *Aziendeik eta ezten lekuan ... ibiltzen*

### 5.1. Eskuineratutako osagaien intonazioaz

Erlatibo hautsiek ahozko hizkeran ez dute ulergarritasun nahasterik eragin ohi. Ezta ere idazle klasikoan artean aurkitu ditugunean. Nire ustea da eskuineratutako osagaiek intonazio unitate beregain ondo mugatuak osatu ohi dituztela, ardatzetik bereziak, eta batez ere esaldi nagusiko beste osagaietatik ondo bereziak. Antzeko zerbait dio Oihartzabalek (1985, 116) erlatibo libre hautsien kasuan, eta translazioak posibleak direla uste dut: «*L'intonation marque bien la pause après le terme post-posé [aditzaren eskuinetik emaniko osagariaren ondoren] et l'unité de la relative est préservée, puisque aucun autre élément extérieur à la relative ne peut prendre place entre l'élément (ou les éléments) extra-posé et la forme verbale relativisée*».

Eta hala ere, inoizka posible da zenbait elementu tartekatzea, modu naturalean, erlatibozko esaldiaren ardatzaren ondoretik eta eskuineratutako osagaien aurretik (honek bere independentzia intonatiboa gordez). Halakoak dira segidako bi adibideak, zeinetan esaldi nagusiko aditz kopula estuki erantsia ageri den ardatzari (intonatiboki ere hala litzatekeelakoan nago), nahiz artean eskuinetik erlatibozko esaldiaren osagaiak eman (balizko intonazio unitate mugak (/) adieraziz):

(184) 76. (2) Eta beharbada, (/) **ematen den pauso haundi bat** DA, (/) *sareen kontuan* (ELB, 26)

(185) 11. (3) **Kontuan eduki bear dan gauza bat** DA (/) *dardarara oen gañean*, (/) beñ azaldutzen bazaiozka ume bati, lendabiziko joaldiak bigarrena askotan ekarri oi duala ondorenean, ... (Med, 2012, 91)

Antz batera hurrengo bietan ere, *bada* juntagailua, edota *direla* medioz osagaiak tartekatuz:

(186) 28. (5) ...; bakarrik esan bear degu inoiz gure leku oetan sortu oi dirala zenbait gaitz urdallekoak baserrietako jendeen artean, **oek egiten dituzten betekarak** dirala medioz *zenbait erromeritan eta oraindik geiago berriz illdakoan eztaietan edo ondretan*, ... (Med, 1380, 64-5)

(187) 80. (3) Eta **entzun dan lema**, ba, *oso zabaldua gure gizartean*, izan da: ... (ELI, 36)

<sup>40</sup> Eta hori ere hartu behar kontutan ahozko hizkera itxuratu nahi denean, literaturan, antzerkian, gidoietan, ...

## 5.2. Erlatibo hautsiak esaldiko aditz nagusiaren aurre/atzealdean

Nire hipotesia zen euskal hiztunak, idazleak, oro har, errazago eman zitzakeela erlatibozko esaldiak hautsita, hauek esaldi nagusiko aditzaren ondoretik ematen direnean, eta ez aurretik; hau da, erlatibozko esaldia esaldi nagusien amaiera aldera ematen zenean<sup>41</sup>. Ezin dut, ordea, ditudan datuetatik halako ondorioz eratorri. Susmoa nuen erlatibo hautsiak, aditz nagusiaren aurretik gertatuz gero, zailtzen ote zuten esaldi nagusia eta erlatiboaren arteko esparruak bereiztea, eta ondorioz esaldion ulermena ere, baina ezin izan dut hala frogatu, ezpada alderantziz.

Medikantzan 675 erlatibozko esaldi arrunt ez fosildu eta osagarridunak kontatu ditugu. Horietako 10 aditz nagusirik gabeko esaldietan. Beste 665etatik 211 ematen dira esaldiko aditz nagusiaren aurretik eta 454 ondoretik. Eta 16 erlatibo hautsi ditugu aditz nagusiaren aurretik emaniko esaldien artean (%7,6), eta 20 hautsi ondoretik emanikoen artean (%4,4).

## 5.3. Beste zenbait korrelazioren inguru

Ez dirudi ere erlaziorik dagoenik halako erlatibo hautsien erabilera eta ardatzak esaldi nagusian erakutsi lezakeen kasuaren artean. Erlatibo hautsietako ardatz gehienak absolutiboan agertzen dira, baina ez dira falta ergatiboan ageri direnak (ik. I eranskinen 13, 25 edo 33 esaldiak), datiboan (ib. 18), soziatiboan (ib. 3), edutezko genitiboan (ib. 14, 22), edo *zergatik* (ib. 2), *zertan* (ib. 8) edo *zertatik* (ib. 24) bezalako kasuetan. Eta edutezko genitiboaren bi kasuetan bezala, zenbaitetan erlatibozko esaldiaren ardatza beste osagai bati lotua ageri da eskuineratutako osagaiak jaso aurretik (*zeren bitartez*, *zeren gainean*).

Ez dirudi ere zerikusi handia duenik erlatiboa hautsia emateak ardatzak erakusten duen determinante motarekin. Eta hala aurki litezke erlatibo hautsien ardatzetan mugatzaileak edo erakusleak, zenbatzaile zehaztuak edo zehaztugabeak.

Bestalde, bi corpus nagusietako erlatibo arrunt hautsi gehienek suposatzen dute erlatibatutako izena kasu absolutiboan (euskaraz arruntena). Baina badira ere erlatibatutako izena *non* kasuan suposatzen dutenak (1. esaldia I eranskinen) edota *nola* kasuan (36. esaldia). Beste hainbeste gertatzen da erlatibo fosilduen artean, non *nola* edo *noiz* kasua suposatu behar den erlatibatutako balizko izenarentzat.

## 6. ADITZ JOKATUGABE BIDEZKO ERLATIBO HAUTSIAK

Erlatibo jokatuaren artean bezala, pentsatzekoa da, *-tako / -(r)ik(ak)o / -ko* atzizki bidezko erlatibo jokatuagabeen artean ere ez direla falta egitura hautsiak. Hasierako adibideen artean jaso ditut halako bi (17 eta 27, hemen errepikatuak):

- (188) Frankismoaren diktadurapean apaizgaitegian bizi izan zuen giroa, ..., Zamorako espetxean sufritu izan zuena, **apaiz izateari utzi eta eginda**

<sup>41</sup> Eta euskaraz aditza hirutik bitan edo ematen baita esaldi aurrealdean, areago esaldia batere luzea denean (Hidalgo, 1994, 1999b), eta esaldiaren karga, osagai luze eta konplexuak, arrunki aditzaren ondoretik, uste nuen erlatibo hautsiak bereziki sartzen bide zirela azken kategoria honetan. Oraingo datuek, ordea, ez diote hori.

**ko ibilbidea politikan, bertso munduan, idatzitakoetan...** (A. Ugarte, *Auzoka*, 2000-VI-24)

- (189) **Igertzeko moduan pilotariak gintzesena** (K. Uriarte, Bertatik Bertara, ETB1, 00-I-10).

Medikantzan bakarra aurkitu dut hautsia hala moduzko 80 esaldiren artean:

- (190) (5) ..., eta ao-erriak sendatzeko, asko izan oi dira *esne, garagar edo ezti pixka batekiñ egindako idurziak egunero zortzi, amar edo geiago aldiz* (Med, 93)

Badut ahozko beste testigantza bat Euskadi irratiko Goizean Behin saioan jasoa (99-X-2):

- (191) *ETAk bidalitako agiria Espainiako Gobernuari bilerarako deia eginez, ...*

Antz batera *-t(z)eko* atzizkiak ere bideratzen ditu maiz erlatiboazko egiturak euskaraz (ik (189)). Eta hauen artean ere badira egitura hautsiak. Medikantzan bakarra, ardatzaren aurretik hasitako halako 97 esaldiren artean:

- (192) ...; bada modu onetan artzen du odolak bizitasun geiago eta indartzen dira birrikak *ez mellarik egiteko moduan aize otzak, eta ez eta ere bustialdi batek, non onela oituta ez dauden jende aei egiñ al izaten dioten beziñ errazki* (Med, 59)

### 6.1. Aditz jokutugabe bidezko erlatibo fosildu hautsiak

Aipatu erlatibo egitura fosilduen antzekoak aurkitzen ditugu maiz aditz jokutugabe bidez emanak. Segidan hautsiak aurkitu ditugun batzuk:

- (193) ... , *ama batec presentatu ondoan bere haur chipichoarj dithietaric bat,* ... (Pou, 14)
- (194) ..., *gu lagundu ondoan mundu hunetan,* ... (Pou, 24)
- (195) eta **beguiratu ondoan** *harat hunat,* ... (Ur, 95)
- (196) Eramaten zan tabernaculoa, aliqueta **allegatu artean** *alchatua izango dan toquirra* (BOEG, 3223)

## 7. ERLATIBO ETENAK

Izen hau eman diet, modu bitxian osagai edo elementuren bat tartekatuta erakusten duten erlatiboetara aditz jokatua (eta honi erantsitako *-(e)n* erlazio atzizkia) eta ondoko ardatzaren artean. Ez dut uste halako esaldiak batere arruntak direnik, baina aurkitu ditut hiru 1994ko corpusean, hirurak ahozko testigantzak (batere ez Medikantzan):

- (197) Orduan, markua, **gaur daon han markua,** ... (KK)
- (198) Bainan, hori, egia esateko, **daukagun desde luego gizartean,** ez du ematen posible izango denik, ... (ELB)
- (199) *Guk ere herrian egiten genittuen txintzarriekin erregetan ateratzeak* eta, hoiak aldatuak ziren aurretik (J.M. Satrustegi, Euskadi Irratia, 1993)<sup>42</sup>

<sup>42</sup> Aurreko bietan bezala azken honetan ere, grabazioan jasotako intonazioak ez du zalantzarik eragiten interpretatzeko, batetik, esaldia erlatiboazkoa dela, eta bestetik, euskaltzainak markatzen duen IS-burua *ateratzeak* dela [*irteerak* esan-nahian]; eta beraz *egiten genittuen ateratzeak* litzateke erlatiboazko egitura, eta *txintzarriekin*, nola *erregetan* erlatiboazko esaldi horren osagarri tartekatua.

Egiturok ez ditut kontutan hartu azterketan, eta *lapsus linguæ* zat jo ditut. Nolanahi, pentsa liteke, erlatibo hautsiak eragiten dituen joera edo behar bertsuen adierazle direla, nahiz ez merezi halako esaldiak errebindikatzeara, erlatibo hautsiak bai bezala, hauen aldean onurarik ez dutelakoan. Aurkitu dut halako esaldi idatzi bat ere Duvoisinenean:

(200) Izan gaitezen **garen orai arteo baino atzarriagoak**; ... (Dv, 98)<sup>43</sup>

## 8. ARDATZA ISILDURIKO ERLATIBO LIBREAK: HAUTSI / HAUTSIGABEAK

Azken ohar batzuk egingo ditut ardatz ageririk gabeko erlatiboen gainean, erlatibo libreak edo<sup>44</sup>, gure corpus bietan jasotako datuen arabera. Euskatzaindiak dio txalogarriki esaldion hitz ordenari dagokionean: «*Ardatz agerikorik gabeko perpaus erlatibo generikoeak badute ardatza agerian dutenek ez duten berezitasun formal bat: artikuluaekin agertzen direnean haien barneko osagaiak aditzaren eta artikuluaeren eskuinean ager daitezke, hauen segidan. Ardatza duten erlatiboekin ikusi dugu usaiak kanpoko jokabidea zela hori, nahiz bakan agertzen den testuetan*». Euskaltzaindiak agerian aipatzen ditu erlatibo generikoak, baina testuinguruari begira ez dirudi bakarrik generikoez ari denik, baizik erlatibo libreez, oro har, jasoaz Oihartzabalek lehenago aldarrikatuturiko antzeko ideiak (1985, 115-7): «*Les relatives libres méritent une attention spéciale en ce qu'elles permettent de placer un SN à droite du verbe relativisé. / Il ne s'agit en aucune manière de procédés stylistiques, mais d'une liberté dont la langue quotidienne fait très abondamment usage (...), et que l'on trouve fréquemment par exemple avec des circonstancielles temporelles. / Cette construction semble avoir joui d'une faveur toute spéciale en haut navarrais méridional, si l'on en juge par les sermons écrits laissés par Lizarraga de Elcano, où ce tour est pratiquement systématique: ...*». De Rijkek ere antzeko ideiak haizatzen ditu jada bere tesian (1972, 164-7). Eta nik neurtu nahi nuen erlatibo libreen kasuan ere hauek hausteko joera, osagaiak emanez aditzaren eta honi erantsitako *-(e)n...* atzizkiaren eskuin.


Aztertu corpus nagusi bietan erlatibo libreak proportzio desberdinak erakusten dituzte ageriko ardatz independentea dutenen aldean. 1994koan (ahozkoagoa edo) aztertu 1.362 esaldi erlatiboetatik 520 dira ageriko ardatzik gabeak, %38,2. Medikantzan, berriz, 1.757 esalditatik 417, %23,7, 1994ko corpusekoen ia erdiak. Ez dut gehiago aztertu desberdintasun honen esanahi posiblerik, nahiz izan lezakeen. Guztira, 3.119 esaldi, zeinetako 937 libre, guztien %30,0. Kurioski, hautsi eta hautsigabeen arteko proportzioak paretsuak dira bi corpusetan<sup>45</sup>:

<sup>43</sup> Baita J.L. Lizundiaren antzeko adibide bat ere (EEg, 1999-XII-9, 5), *lapsus calami* zat daukaguna: ... *Lizarra-Garazi, Hazparne, Maule eta bestelako merkatuen aipurik ere ez den egiten bezalaxe*.

<sup>44</sup> Baina ez ditut hemen kontuan hartzen ageriko ardatzaren ondoretik, aposizioan, emandako erlatibo nominalizatuak. Hauek sail honetako hurrengo artikuluan tratatuko baititut bereziki.

<sup>45</sup> Bi corpusetako erlatibo libre hautsi guztiak erakusten ditut II eranskinean.

### Erlatibo libre hautsiak bi corpusetan




	1994		Medikantza		2 corpusak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Osagarridunak:	447	100%	400	100%	847	100%
Hautsigabeak:	369	82,6	315	78,7	684	80,8
Hautsiak:	78	17,4	85	21,2	163	19,2

Kurioski, erlatibo libre hautsien proportzioa nahikoa txikiagoa da bi corpusetan aposizioan emaniko antzeko erlatibo nominalizatuen artean baino (%29,3 orduan)<sup>46</sup>. Eta gogoratu behar erlatibo arrunten arteko hautsien proportzioa %8,0koa dela, Euskaltzaindiak hau baztertu arren.

#### 8.1. Erlatibo libreak osagaika

Eşpero bezala, erlatibo libreak ere askoz joera handiagoa erakusten dute hautsiak agertzeko esaldiari osagaiak erantsi ahala bi corpusetan ere:

#### Erlatibo libre hautsiak osagaika 1994ko corpusean




<sup>46</sup> Artikulu sail honen bigarrenean emango dut izen ardatzaren ondoretiko erlatiboen azterketa osatua. Baina aurrera nezake nola aposizioan eta nominalizaturik emaniko 225 erlatiboen artetik 66 ematen diren hautsiak bi corpusen artean (%29,3), nahiz badiren aldeak corpusetan: %22,0 1994koan; %38,8 Medikantzan.

1994ko corpusa:

	Esald. denera		Hautsigabeak		Hautsiak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Konp. 1	222	51,2	213	95,9	9	4,1
2 konp.	100	23,0	85	85,0	15	15,0
3 konp.	49	11,3	33	67,3	16	32,7
4 konp.	25	5,8	13	52,0	12	48,0
5 (edo +)	38	8,8	16	42,1	22	57,9
Denera:	434	100%	360	82,9	74	17,1

Erlatibo libre hautsiak osagika Medikantzan



Medikantza:

	Esald. denera		Hautsigabeak		Hautsiak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Konp. 1	113	28,2	110	97,3	3	2,7
2 konp.	101	25,2	96	95,0	5	5,0
3 konp.	65	16,2	61	93,8	4	6,2
4 konp.	32	8,0	22	68,7	10	31,25
(edo +)	89	22,2	26	29,2	63	70,8
Denera:	400	100%	315	78,7	85	21,2

Bi corpusen arteko joera ere bertsua beraz. Segidan taula soilik:

Bi corpusen artekoa:


	Esald. denera		Hautsigabeak		Hautsiak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Konp. 1	335	40,2	323	96,4	12	3,6
2 konp.	201	24,1	181	90,0	20	10,0
3 konp.	114	13,7	94	82,5	20	17,5
4 konp.	57	6,8	35	61,4	22	39,6
5 (edo +)	127	15,2	42	33,1	85	66,9
Denera:	834	100%	675	80,9	159	19,1

Azpimarratzekoa nola esaldi luzeen artean bi corpusetan erabateko gehiengo diren hautsiak.

## 8.2. Erlatibo libre fosilduak: *LT*

Oihartzabalek zioen goiko aipuan (1985, 115-7) erlatibo libre hautsien proportzioa nahikoa igo litekeela *-(e)nean* atzizki bidezkoen artean, eta hala aurkitu dut nik ere bi corpusetan:

*-(e)nean* erlatibo hautsiak bi corpusetan



	1994		Medikantza		2 corpusak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Osagarriak:	133	100%	163	100%	296	100%
Hautsigabeak:	91	68,4	104	63,8	195	65,9
Hautsiak:	42	31,6	59	36,2	101	34,1

Gainera 11 osagarriak 1994koan, eta 7 Medikantzan. Denera, beraz, 314.

Ia bi aldiz hautsi gehiago (%34,1) erlatibo libre guztien artean baino (%19,1; orduan *-(e)nean* bidezko egitura fosilduak barne). Denborazko esaldi fosilduok ate utzita 534 esaldi ditugu bi corpusen artean, zeinetako 62 hautsi: %11,6.

Gauza bertsua sumatzen dugu *-(e)nez* atzizki kausalaren bidez osatutako erlatibo libreen artean. Hala, 1994ko corpusetan (Medikantzan ez dugu 3 adibide baino aurkitu, zeinetako bi soilik osagaidun, 2ak hautsigabeak), halako %26,9 esaldi aurkituko ditugu hautsiak, oro har, %17,4 baino aurkitzen ez genuenean hautsita (*-(e)nez / -(e)nean* esaldiak barne)<sup>47</sup>:

1994ko corpusa:

	Kopur.	%
Osagaidunak:	26	100%
Hautsigabeak:	19	73,1
Hautsiak:	7	26,9


Gainera 3 baiezko osagigabeak. Denera, beraz, 29<sup>48</sup>.

<sup>47</sup> Hauek ere bazter utzita 508 esaldi erlatibo libre izango ditugu, zeinetako 55 hautsi: %10,8.

<sup>48</sup> Kontutan hartu behar da nolana, bai *-(e)nean*, eta bai *-(e)nez* bidezko esaldiek joera berezia dutela esaldiko aditz nagusiaren aurretik agertzeko (beste erlatiboek ez bezala). Hala, esateko *-(e)nean*

### 8.2.1. *-(e)nean* osagaika

*-(e)nean* bidezko erlatibo libreek ere goian aipatu joera bera erakusten dute, esaldiak luzatzen doazen heinean osagaiak errazago erakusteko aditzaren ondoretik:



Bi corpusen artekoa:

	Esald. denera		Hautsigabeak		Hautsiak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Konp. 1	81	27,4	73	90,1	8	9,9
2 konp.	71	24,0	60	84,5	11	15,5
3 konp.	45	15,2	34	75,6	11	24,4
4 konp.	28	9,5	13	46,4	15	53,6
5 (edo +)	71	24,0	15	21,1	56	78,9
Denera:	296	100%	195	65,9	101	34,1

### 8.3. Noiz erabili ohi dira erlatibo libre hautsiak? Eskuineratutako osagaien luzera eta konplexutasunaz

Errepikatu behar 5. atalean aipatua erlatibo arrunt hautsien kasurako, nahiz errazxeagoa dirudien haustura erlatibo libreen artean: hainbat errazagoa, zenbat eta pisu, luzera edo trinkotasun handiagoa izan eskuineratutako osagaiak (ik. II eranskina, non ez diren falta labur askoak ere, segidakoaren antzekoak –ik. 1, 4, 6, 23, 25, 27, 31, 32, 40, 48-54, 56-9, 115-122, 157-8, 163,...–):

(201) **Bixi dana** *Gerniken* dau gaixorik, ... (Gam, 1990, 149)

atzizki bidezkoegi dagokienean, 1994ko corpusean %77,1 esaldi ematen dira aditz nagusiaren aurretik eta soilik %22,9 ondoretik. Medikantzan, berriz, % 52,9 aurretik eta %47,1 ondoretik (kontutan hartu behar da Medikantza, oro har, oso aditz aurreratuzalea dela). Hala, 2 corpusen artean: %63,9 aurretik / %36,1 ondoretik. *-(e)nez* atzizkiari dagokienean, berriz, 1994ko corpusean %82,8 esaldi ematen dira aditz nagusiaren aurretik, eta soilik %17,2 ondoretik.



Aipatu ere nola behin bederen baden corpusean erlatibo libre hautsi bat esaldi nagusiko aditz kopula tartekatzen duena erlatiboazko esaldiko aditza eta eskuineratuko osagaien artean:

- (20) 38. (3) Esate baterako, *ereduen kontuan esaten dena* DA, *eranskin batean*, hiru ereduak daudela (ELB, 226)

## I ERANSKINA: ERLATIBO ARRUNT HAUTSIAK<sup>49</sup>

### A. Medikantza

#### 1. Erlatibo hautsi orokorrak

##### a. Baiezkoak:

1. (1)<sup>50</sup> Onela gertatu da kolera eta tiputza deritzen diogunakin zeñak izanik beren jatorria **izandu zuten parajeetan bertakoak**, urte gutxi igarotzen diran gure alde oetan nonbait edo leku bat edo bestean azal dutzen ez dirala ... (361a, 22)
2. (1)..., eta oztuta itxasoan sartzea dan gauza txit arraxku aundikoa **etorri litezken kalteak gatik osasunerako** (2262, 101)
3. (2) **Esan ditugun gauza oekin garbitasunaren gañean**, uste degu naikoa dala ... (557, 28)
4. (2) Azkenik, **ezur autsiak ateratzen duan krakarakoa mugitzen danean** da askoz aundiagoa eta igarten errazagoa aterearena baño; ... (1704, 79)
5. (2) **Lendabiziko eduki bear dan gauza bat gogoan** da, onena dala naiz amarentzat eta naiz ume jaioberriarentzat ... (1885, 85)
6. (3) Eta ain da egiazko gauza aitortu degun au, edo parajeko izaerak egiten dituan mudantzak eta **eraozten diozkan itxurak bertako jende eta bizilagunari**, non esan izan duan gizon jakintsu batek ... (184, 13)
7. (3) ... naiz eta guk eziñ emen adierazo **kontuan eduki bear diran argibide guziak gauza oen gañean**, ... (395, 23)
8. (3) Bai eta ere aditzera eman bear degu gaitz pegakorren bat azalduzko bildurra dagoanean ez dala mudantzarik egin bear **bakoitzak daukan usariyoan jan eta eranean**, askok uste izan duten bezela; ... (469, 25)
9. (3) Medikuak beren aldetik eman bear diote aditzera agintariai azal dutzen dan bezin laister esandako gaitz pegakorren bat, artutzeko **bear diran neurriak berari alde egiteko**; ... (478, 26)<sup>51</sup>

<sup>49</sup> Corpus hauen osaketaren gainean ik. 3. atala.

<sup>50</sup> Parentesi arteko zenbakiak erlatiboazko esaldiaren osagarri kopurua adierazten du. Lerro hasierako zenbakiak zenbatzen ditu adibideak. Adibidearen ondoren bi zenbaki ematen dira parentesi artean. Bigarrenak adierazten du liburuko orrialdea. Lehendabizikoa kontrol zenbakia baino ez da. Adibide guztietan saiatu naiz ahalik eta testuinguru zabalena ematen, erlatiboazko esaldia (eta esaldi nagusia) behar bezala ulertua izan dadin jatorrizko testura joan beharrik gabe. Zenbaitetan, hala ere, artean ilun gerta liteke esaldi osoaren esanahia, hau hobeto ulertzeko eman beharreko testuingurua luzeegi litza-tekeelako. Halakoetan jatorrizko testura jo behar. Adibideetan, erlatiboazko esaldiko aditza, *-(e)n* erlazio atzizkia eta erlatiboazko esaldiaren burua, beltzaxketan eman dira; erlatiboazko esaldiaren osagaiak, aldiz, kurtsiban, hala esaldiaren aurretik, nola ondoretik.

<sup>51</sup> Badira halako zenbait esaldi (ik. ere 9. honetaz gain 19, 73, 77 eta 92) *-t(z)eko* osagai bat erakusten dutenak erlatiboazko esaldiaren izen ardatzaren eskuinetik emanda. Halakoetan duda egin liteke *-t(z)eko* osagaia ez ote den zuzenean izen ardatzaren osagarri, eta ez erlatiboazko esaldiarena. Oro har, bitxiagoa dirudi irtenbide honek, delako osagaia erlatiboazko esaldiaren parte kontsideratzearena baino.

10. (3) ..., bada emakumea ondo janak artutzen badu ez dira eduki bear *askok oi dituan erreparoak gauza onen gañean*, ... (1905, 86)
11. (3) *Kontuan eduki bear dan gauza bat da dardarara oen gañean*, beñ azaldutzen bazaiozka ume bati, lendabiziko joaldiak bigarrena askotan ekarri oi duala ondorenean, ... (2012, 91)
12. (3) *Lendabiziko kontuan eduki bear dan gauza berako onetan* da, umeak artutzen duan esne edo bularrari dagozkionak ... (2082, 94)
13. (4) ..., bai eta ere da egia gure guraso zarrak ezagutzen ez zituzten gauzarik askok osasunarako eta *egunero egun egiten diran aurreratzeak jakinikizun artarakoetan*, gaurko egunean alaituzten dutela gure izaera, ... (325, 20)
14. (4) Bakarrik esango degu *gaurko egunean egiñ diran aurreratzeen birtatez medikantzako gauzetan*, lenagoko denboretan eziñ sendadutzat eduki oi ziran zenbait gaitz, moldatzen dirala orain ongi, ... (1364, 64)
15. (4) ...; bañan *ezur autsitakoak egiten duan mugimentua artara bear-tzen danean*, da señalerik lendabizikoena antz emateko autsia dagoala, ... (1675, 78)
16. (4) ..., eta ezin egiñ izaten ditu *lenago egiñ al izaten dituan mugimentuak bere tokian dagoanean* (1701, 79)
17. (5) Onela bada inoiz aizeak ekarri lezakean kalte bat edo jan edo eranak sortu lezakeana, eta *burni, arri, edo makilla eta oen antzerakoak egin litzakean okerrak gure osasunean*, esango degu dirala gaitz sortzalle gorputzetik kanpoan izaera daukatenak; ... (92, 9)
18. (5) Gaitz sortutzalle banatikoak izendatu ditugun aetan, batzuek ematen diote izaera *gizon edo emakume batean bakarrean azaldu litekean gaxoari izan gabetanik au pegakorra inorentzat*, ... (112, 10)
19. (5) ...; izanik *aurrerako denboretan inñolaz ere bide onetatik etorri bear zaizkigun ondasunak gaitz asko eta asko erremediatzeko artarako zenbait gizon jakintsu egiten ari diran saioen bitartez* (125, 11)
20. (5) ...; gañera berriz esan ditugun ur oek ez bakarrik aberastasunik asko dakarte bere ondorean, ez bada beretan billatutzen du erraztasun aundiarekin paraje oetako jendeak *zenbait gaxotan bear izaten diran medikantzak, asi burni uretatik eta bai ere beste erremedio modu biziro banakikoak* (210, 15)
21. (5) Bañan gure parajeetako errietakoari dagokionagatik esan gentzake geienenbategor de erazotzen dituztela *legeak agindurik dauzkaten gauzak esaten ari geran onen gañean*, ... (346, 21)
22. (5) Esan ditzagun orain itz batzuek, *agintariak, etxeko nagusiak eta medikuak artu bear dituzten neurrien gañean, onelako gaitz pegakorren bat azaldutzen danean* ... (393, 23)
23. (5) Medikantzako kondairetan interesatsuenetatik bat bada inñolaz ere *Jener zeritzaion mediku ingeles arrek egiñ izan zituan alegiñak eta lanbideak iritxi zuan arte jendeen artean sartu eta ontzat oek edukitzea napparreyaren txertua* (912, 46)
24. (5) ... bada *mediku jakintsu batek eraman dituan kontuetatik sei mila napparreyarekiñ illdakoen artean*, ateratzen du oetatik euneko ogieta bost (25%) zirala berak ziyoten ez txertatutakoak, ... (953, 48)
25. (5) Alkar jotze au bi gauza oen artean gertatzen da arako birrikak beren barruan daukatela esan degun kanale txiki aetan, zeñak ...: *oetara kanpotik sartzen dan aireak zinzurrean bera etorriaz*, ez dauka esan ditugun zaiñ txit ugari eta txiki aen barruan datorren odolarekin nastutzeko, armiarma sare baten antzeko estalgarri bat ez bada biyen tartean, ... (1049, 52)

26. (5) ... bukaera emateko esan bear degu, *asnasea artzeko tokietan sortu litezkean okerrak kolpez edo ebaki eta antz onetako gauzen bitartez*, onelakoen bat gertatzen danean zer egin bear dan ez dagokigula leku onetan ipintzea, ... (1201, 57)
27. (5) ...; eta azkenik *lenago aitortu ditugun beste zenbait gauza puntu onen gañean itz egin degunean* (1223, 58)
28. (5) ...; bakarrik esan bear degu inoiz gure leku oetan sortu oi dirala zenbait gaitz urdallekoak baserrietako jendeen artean, *oek egiten dituzten betekarak* dirala medioz *zenbait erromeritan eta oraindik geiago berriz illdakoen eztaietan edo ondretan*, ... (1380, 64-5)
29. (5) Eta gañera kargu egiten bagera zein ugariak eta zenbateraño iristen diran zañ oen lantegiak, arriturik geldituzteko gauza da *gure gorputzak berekiñ dauzkan aiñbat jazkera bere barrunbean bakoitza bere eginkizunetarako ipiñiak* (1490, 69)
30. (5) Gaitz oetatik señaileenak dira, lendabiziko, *biotzeko miña izendatzen dan gaxo ori naiz eta ez eduki berarekin biotzak zer ikusi*, bañan jendearen oiturak lengo denboretan ipiñitako izenarekin berarekiñ ezagututzen da gaurko egunean ere (1501, 70)
31. (5) ...; bañan adierazotzera emango ditugu *familietan jakitea ona dan zenbait gauza inoiz edo beste eginkizun oetan arkitutzen diranerako* (1549, 72)
32. (5) ...; eta *egin bear ditugun galdera moduak gaxoari zer eta nola miñ artu duanaren gañean*, argi egingo digute asko eta asko, antz emateko bear bezela ezurra aterata edo autsita ote dagoan leku batean (1706, 79)
33. (5) *Umeak izan oi duten iturriko ura bezelako berakoak egunez eta ga-bean beti puntutik puntura ustuz egoten dirala*, itxuragabetzen diote arpegia, ... (1980, 90)

b. Ezezkoak:

34. (3) ..., bai eta ere da egia *gure guraso zarrak ezagutzen ez zituzten gauzarik askok osasunarako* eta egunero egun egiten diran aurreratzeak jaikiñkizun artarakoetan, gaurko egunean alaitutzen dutela gure izaera, ... (324, 20)
35. (5) ..., oraindik bera ezer argitaratu gabe dagoan denbora bitartea; au da, *osasunean mudantzarik igertzen ez duan denbora naiz eta gaitzez kutsutua norbait egon*; ... (765, 38)
36. (5) Orain esaten ditugun odol-bildu oek sortutzen badira gorputzeko zañik txikirik eta estuenian eta an galdutzen bada odola *gauza ez dan moduan gorputzeko zatiak mantentzeko eta oei bear duten bizitasuna emateko*, orduan au gertatzen dan toki artan sortutzen da aundidura deritzen diogun izatea (1466, 68)<sup>52</sup>

2. Erlatibo hautsiak: *-(e)n bezela(ko...)*

a. Baiezkoak:

37. (1) Bañan naiz eta zerbait ajiatu bañan osoro galdutzen ez dala gelditutzen bada burua *oi dan bezela perlesiarekin*, orduan gelditutzen dira ere erdi illik ... (1494, 70)

<sup>52</sup> *-(e)n modu(an)* egitura ere (adibide honetan dakusagunaren itxurakoa) kontsidera zitekeen erlatibo fosildua. Ez dut hala egin, halako adibideak gutxi direlako, eta *modu* hitzak erabilera zabala duelako berezko hitz oso bezala.

38. (1) Orain esan bear degu itxasoko bañuak erremediotzat ematen dirala geienenbat, izendatzera goazen izate edo gorputz aldietan; lendabizikoa, berez odol bigunekoak **esan oi dan bezela** *dirala* diranai, batezere gazte jendeari; bigarrenko, ... (2153, 97)
39. (1) ..., itxaz baztarrean ibiltzearekin bakarrik arkitutzen dute beren osasunerako erremediorik onena baterere bañurik artu gabetanik, **ikusten dan bezela** *askotan* (2171, 98)
40. (2) Ez degu uste era berean, zenbait kanpoko parajeetan usariyo dan bezela, eman bear dirala busti aldiak iturriko ur otzarekiñ bada au gogorra derizkiogu eta gañera ez da gauza ezereren erreparo eta arraxkurik gabe egiñ litekeana **gertatzen dan bezela** *beste aldera bañu epelakin* (715, 35)
41. (2) Asta napparriyak asieratik oi ditu berekiñ puslo edo maskulloak eta ez pikorta gogorrak *napparriyak* **dituan bezela** *lenengotikan* (899, 46)
42. (3) ..., eta ikusten da oetan, itxasoko urarekin artutako bañu epelaren ondorean ez dituala jotzen otz ikarak **gertatu oi dan bezela** *ur geza epeldutakoarekin artutzen diranean*; ... (2184, 99)
43. (5) ..., zeña dan, leku epel eta bigunetan bizi dan jendeak ez daukala berekin mendi errietakoen gogortasun eta soportua, **gertatzen dan bezela** *gure Euskal-errikoakin zeñak dauden onetan aurrean aurrenekoen artean* (189, 13)
44. (5) ...: ez degu onegatik esan nai paraje oetan bertakotzat artu bear dirala gaxo oek, baizikan urte muda jakin batzuetan ugariagoak dirala, **gertatzen dan bezela** *neguan eztul eta alborengoakin eta udaran este eta gibelesko zenbait gaitz modurekin* (229, 15)
45. (5) ..., egin zuan modua jende aek bereganatzeko diruz edo beste al zuan bezelako bidez, eta au egin zuan bezin laister ikusi zuan ere andikan aurrera erraz asko menderatu zituala Anibalen soldaduak **esan duten bezela** *utzi dituzten liburu zarretan denbora antziñako aetako gizon kondairaleak nola diran Estrabon, Plinio, eta Silio Italiko izendatzen ziran aek* (299, 18)
46. (5) ..., ez dediñ zabaldu beste lekuetara gaitz pegakorrik azaltzen dan artatik, **dakiten bezela** *jende guziak ez bakarrik parajean bertakoak, ez bada bai eta kanpotarrak ere* (352, 21)
47. (5) ..., orduan eta geiago kontu artu bear dala gauza oen gañean, ez artuaz ur irazeki eta onen antzeko erari gogorrak, entzuerarik eman gabe *tabernariak beren irabaziari begiratuaz bakarrik* **esan oi dioten bezela** *jende ez dakienari, onelakoetan eran bear dirala erari esandako oek* (473, 25)
48. (5) ..., zergatik gertatu izan da medikua bera izatea gaitzaren zabaltzallea kontuan ez edukitzeagatik lenago aitortu degun gauza au, *Parisen* **gertatu zan bezela** *emakume aur egin berri askorekin zeñai bata besteganako gaitza pegatu zitzaioten beren medikuen eskuen bitartez*; ... (483, 26)
49. (5) ...; *lendabiziko izenakin aditzera* **eman nai zuten bezela** *zer izan zitekean berez eta bere izatez aitortzen ari geran gaitz au* (565, 29)
50. (5) ...; eta au jakifiñarekin asko aurreratua daukagu ere eraotzi azteko onelako gaitz moduak zabaltzea *iñoiz* **gertatzen dan bezela**, *ematen dituztela etxeetan naigaberik asko berekiñ dakazkiten arraxku aundiak gaitik* (780, 38)
51. (5) *Elkorrian lendabizi* **azaldu oi diran bezela** *esan ditugun eztul eta sudur begietako negarrak, eskarlatak oi du bere asieratik berriz beti eztarriko miña*, ... (811, 40)

52. (5) ...; da esatea, gizon edo emakume bat bakarra nazio artan bizi dan milloi bat jende bakoitzeko, **erakusten diguten bezela gauza onen gañean urte artan mediku batek eraman dituan kontuak** (841, 41)
53. (5) *Geienean gertatu oi dan bezela gauza on bat ustegabeen norbaitek billatu edo ezagutzea*, orduan ere gertatu zan jende oekiñ, zeñatetik ... (918, 47)
54. (5) Betiko lan onen bitartez gertatzen zaio biotzari beste gorputzeko lan asko egiten duten zati edozeñi gertatzen zaiona zeña dan aunditu edo azitzea, **oi zaioten bezela ogia egiten duenari besoa, edo nekazaria-ri eta beste langilleai eskua**; ... (1430, 67)
55. (5) Gañerakoan gauza jakiña da ao-eriak geienean sortu oi zaitzela umeai ortzak irtetzeko denboran, eta lan onetan laguntzeko ohea dala berai ematea aora, gauza bigungarriak eta ez gogorak, **askok usariyoa daukaten bezela, ezurrezko jostallu batzuek lepotikan zinzilik ipintzen diozkatela**: ... (2052, 92)
56. (5) ..., ematea berari ez-bidezko jatekoak zeñaren bitartez ikusi oi dan sarritan nola umeak alferrik galtzen diran eta baita ere askotan bizia galtzen duten, **gertatu oi dan bezela geienenbat erri aundietako jende beartuen artean guztiok dakigun bezela** (2117, 95)

b. Ezezkoak:

57. (3) ..., bizi dira lan gogorren azpian eta oen garunak eta oen zaiñ zu-riak daude geldirik, **gertatzen ez dan bezela beste onenbeste zaiñ gorri eta biotzarekin**, bada oek ... (1540, 72)

3. Erlatibo hautsiak: -(e)n arte(an)

58. (5) ..., bañan beti negu aldera berritzen zaiote beren gaitza eta pixka banaka joaten dira bigunduaz **azkenik gaitzak menderatzen dituan artean biriketean eta biotzean egiten dituan ajeen bitartez** (1123, 54)
59. (5) Esan oi da emakume bat aur-egiteko dagoala, bere sabelean umea sortutzen danetik **ume au azi eta itxuratutzen dan artean amaren sa-beletik kanpora bizi izateko moduan** (1768, 81)
60. (5) Beragatik emakumea arkitzen da aurra egiteko dagoan denbora bi-tartean, izate modu txit nolabaitekoan, bada ez bere buruarentzat baka-rrik lana egiñ bear dute arren gorputzeko zati guziak, baizik baita ere be-rekin daraman bizi-lagun txikiarentzat ere, **bear dan moduan au moldatu dediñ artean gizon edo emakumetxo osoaren itxurak arturik** (1774, 81)
61. (5) Medikantzako kondairetan interesatsuenetatik bat bada iñolaz ere Jener zeritzaion mediku ingeles arrek egiñ izan zituan alegiñak eta lan-bideak **iritxi zuan arte jendeen artean sartu eta ontzat oek edukitzea na-parreiyaren txertua** (913, 46)

4. Erlatibo hautsiak: -(e)n bitartean

a. Baiezkoak:

62. (5) Onezaz gañera ez dira gaizki etortzen ipintzea sabelean linazizko enplastoak eta ematea ere este garbigarriak malmen urarekin edo al-midoe eta arrautza zuringoa nastutakoakin, **medikuak agintzen dituan bitartean beste berari derizkion erremedioak zeñetarako ots-egin bear zaion denborarik galdu gabe onelako gaxoetan** (2090, 94)

b. Ezezkoak:

63. (5) **Egiten ez diran bitartean baserri etxeak bear bezela, bertako bizila-gunak eta ganaduak bata besteagandik urrutiago egunez eta gabaz egoten dirala**; ... (648, 33)

64. (5) Gaitz oetakoren batekiñ kutsutu eta *bera asitzen ez dan bitartean mudantzaren bat egiñ azten norbaiten osasunean*, ez da erraza izango antz ematea zeñ aetako azaldu ote litekean; ... (792, 39)

5. *Erlatibo hautsiak: -(e)n bezin/ñ*

65. (3) Medikiak beren aldetik eman bear diote aditzera agintariai **azal dutzen dan bezin laister esandako gaitz pegakorren bat**, artutzeko bear diran neurriak berari alde egiteko; ... (476, 26)
66. (3) Bestetik esan bear degu, ez dala aintzakotzat artu bear zenbaitek esan eta agindutzen dutena; zeña dan, **ezagutzen dan beziñ laister gaxo bat tiputza dala** bereala asi bear dala bañuak ematen: ... (690, 34)
67. (4) Geienenbat biotza izan oi da ajeatzen dana eta ez da misterio, bada *gizonak sortuera daukanetik beziñ laister*<sup>53</sup> *amaren sabelean* eta illtzen dan artean, beti ari da biotza lanean gelditu ere gabe ... (1425, 67)

6. *Erlatibo hautsiak: -(e)n medioz*

68. (4) ...; eta *oek zer eta nola diran medioz aldi batzuetan*, era berean sortutzen dituztela gaitz gutxi edo geiago (104a, 10)

7. *Erlatibo hautsiak: -(e)n ezkerot(tik)*<sup>54</sup>

69. (5) **Esan degun ezkerot itz labur batzuetan zer nolakotzat artu izan duten gizon jakintsuak gaitza edo gaxoa**, gauza egokia derizkiogu orain esatea beste batzuek ... (83, 9)
70. (5) **Esanik utzi degun ezkerot itz labur oetan zer diran medikantzak eta erremedioak**, goazen ikustera zer diran osasuna galdu gabe edukitzeko kontuan eduki bear diran egitekoak, ... (150, 11)
71. (5) **Esan ditugun ezkerot bañua artutzerako gogoan eduki bear diran kontuak**, itz batzuek esango ditugu ere zer eta nola beñ potzura sartu ezkerotzik egiñ bear diran gauzak, ... (2260, 101)

B. 1994ko corpora

1. *Erlatibo hautsi orokorrak*

72. (1) Hori lotsagarri bat da, **daon situaziñoa Euskadin**. (KK, 43)<sup>55</sup>
73. (1) Gustatzen zaizkit, ..., zait, egiten ari diren lana; **egiten duten ahalgina euskalduntzeko**; ... (ELZ, 126)
74. (2) Ezar baginetza bata bertzearen gainean *hekietan egin diren galtzeak urthe bakhar batzuez*, ... (Dv, 172, 115)

<sup>53</sup> Arruntagoa litzateke *daukanetik*-en ordez *daukan* aurkitzea (edo bestela esaldia, *beziñ laster* lokuzioa gabe).

<sup>54</sup> *-(e)n ezkerot* formula ez da *-(e)nez gero*-ren berreraiketa baino, eta hau erlatibo nominalizatu litzateke *-z* atzizkiaren eransketaz. *Ezkerot*-k, hala ere, beste zeinahi denborazko ardatzen jokia egiten du (*bitarte*- edo *arte*-en pareko). Horregatik kontsideratu ditugu 3 esaldiok atal honetan, eta ez erlatibo nominalizatu hautsien arteko.

<sup>55</sup> 1994ko corpuseko adibide gehienak, corpora bera ere, ahozkoak dira. Adibidearen ondorean, parentesi artean eman laburdurek identifikatzen dute hiztuna *-ik*. amaieran *Erabilitako laburdurak* eranskina-. Ondorengo zenbakia, nire kontrol zenbakia da. Laburduraren ondoren bi zenbaki direnean, adibidea idatzizkoa da. Bigarren zenbakiak eramango gaitu testuaren orrialdera. Lehena nire kontrol zenbakia da.

75. (2) ..., da egon sien urte baten be, beittu, an gure etzin aurrien, beste, olan etxe bat, **errixen egon sienik propietaixorik andixenak**, *Gorosiken*. Neskasarrak ixen sien aek, ... (EEG, 56, 61)<sup>56</sup>
76. (2) Eta beharbada, **ematen den pauso haundi bat** da, *sareen kontuan* (ELB, 26)
77. (2) Gustatzen zaizkit, ..., zait, egiten ari diren lana; ...; **egin duten ahalegina euskera hobetzeko**; ... (ELZ, 128)
78. (3) Eta gutxi egongo dira Espainian **Euskadiko enpresariak duten kultura industri mailan** (KA, 7)<sup>57</sup>
79. (3) Eta **orain daukagun panorama 10 urte pasata**, ... (ELB, 256)
80. (3) Eta **entzun dan lema**, ba, *oso zabaldua gure gizartean*, izan da: ... (ELI, 36)
81. (3) Hain zuzen ere, e ..., **saldu den mezua**, *bai eskola eta ikastolei zuzendua*, izan da: ... (ELI, 153)
82. (3) Edo hil dela norbait, eta **pozik daoen jendea utzi dizkion gauzengatik**, ... (S, 302)
83. (4) Baizikan **egin dian [errekonbertsioak]**, *bai Acenor, Labe Garaian datozenak, 3R, etabar*, ba oaindikan desenpleua igo egingo dala, ... (KM, 54)<sup>58</sup>
84. (4) **Hor parlamentuan eman ziren esplikazioek**, *esateko debatitu dala*, neretzako eta errespeto osoarekin, lotsagarriak dira (ELGo, 78)
85. (4) Beraz ez dut ondo ulertzen, **hor egiten diren argumentazio hoiak**, *gurasoek duten, ez duten nahi* (ELGo, 266)
86. (4) Beste alderdi batetik, guk ikusten dugu, e ..., **diseinatu den hezkuntz sistema**, *elkarte autonomoan bi sareren inguruan*, diseinatua geratzen dela: ... (ELE, 25)
87. (5) Biolentzian eragina bakarrik izango balitzake, nik usten det, gauza asko zuzenduta egongo lirazkela: *gaur, gure esku eta administrazio zentralaren esku dauden gauza asko berrindustrializazio baten aurrian, eta baita ere lengo industriak mantentzeko* (KM, 87)
88. (5) *Euskalduntze prozesuan, eskola publikoak eman dituen pausoak, e, ikasleen eskolarizazioan, edo irakasleen euskalduntzean, ...* (ELB, 134)
89. (5) *Aldez aurretik, jakinean, jarri zaien, umeei jartzen zaien tresna hori, euskera eta erdera ikasi dezaten, A eredu konkretu horretan*, porrote-ra kondaturik daudela (ELGu, 152)
90. (5) *Aldez aurretik, jakinean, jarri zaien, umeei jartzen zaien tresna hori, euskera eta erdera ikasi dezaten, A eredu konkretu horretan*, porrote-ra kondaturik daudela (ELGu, 153)<sup>59</sup>
91. (5) Ez zaigu gustatzen *administrazioak jokatu duen papera sare publikoaren ordenamentuan eta bere bultzakadan* (ELE, 52)

<sup>56</sup> Erlatibo berezia da *-(e)nik* atzizkiarekin *-(e)n* atzizkiaren orde. *Goroxiken* osagarria, nolana, da, aurreko *errixen* haren, zehaztapan, oihartzun dislokatu bat baino.

<sup>57</sup> Esaldiari *dutenak* edo antzeko zerbait faltako litzaiok *egongo dira* aditzaren osagai, zentzua osatzeko.

<sup>58</sup> Esaldia, bere testuinguruan, erlatibo hautsi bezala interpretatu dugu, *Acenor, Labe Garaian, 3R* osagaiak interpretatuz erlatiboak esaldiaren *egin dian* aditzaren NON osagai –anakoluto– bezala. Egia da, kasuan beste interpretazio batzuk ere posibleak direla, baina ez plausibleagoak.

<sup>59</sup> Esaldiak aditz nagusiaren errepika dakar, eta horretatik, adibidearen bikoizketa. Hori izan da, estatistikak egiterakoan, antzeko errepikapen guztien aurrean hartutako erabakia, hauek zeinahi mota-takoak izaki ere.

92. (5) *Eta gaur eguneko gizarteak eskatzen duen iniziatiba eukitze hori, lantzeko ikasgelan, eta gurasoak entrenamenturako eukitzeko, aukera ezin hobea zen hau* (ELBe, 296)
93. (5) *Arrantza[k], nik uste dut, Europako Ekonomi Elkartean sartu baiño lehenago ezagutu zuen krisisa, orain, oraindik ez dugula konpondu. Eta gero horrek gure eskualdean izan duen eragiña, alde batetik, untzigintzan: “Luzuriaga” ia ixtear dago; ...* (KAI, 12)

2. *Erlatibo hautsiak: -(e)n bezala*

94. (1) *Ta nik esango nuke ipini duela ...: situazio larri batean gaude, ta ipini digula “economia de guerra” esaten den bezela erderaz* (KR, 196)
95. (4) *Bortzpasei urtez haurretik athera da jende bat; haurra nehortu da, hain polliki erraiten zuten bezala gure arbasoek lehenago* (Et, 13, 54)
96. (5) *Hau da, guk Euskadin daukagun industria asko, ba, danok herri denetan ikusten deun bezela, ba piskat nahiko porrot inda* (KM, 28)

3. *Erlatibo hautsiak: -(e)n legez<sup>60</sup>*

a. *Baiezkoak:*

97. (2) *...; lurretan isaten da, aldasberan dauen les soluek, lurre berantz etorten da; ...* (EEM, 42)
98. (2) *Bueno, da, bixok, ibil gintzen les an, gero ba, ...* (EEM, 141)
99. (2) *..., urrien dauen les guretik, ba alantxe juten giñesan* (EEG,9)
100. (3) *Bedeincatu dogun leguez maija jan aurrian, emon daijoguzan esquerrac Jangoicuari* (Mo, 680, 113)
101. (4) *..., jute gintxisen, gero eskolas egunes, ba esin beti xuan, se etzin eoten san les biarra, da gero ba bedarrak eta, etzeko gausak ebaten* (EEM, 38)
102. (4) *..., ba guk urrien daukun les ori mendixori, ...* (EEG, 8)

b. *Ezezkoak:*

103. (1) *..., batzuk, igual seniden batzuk euko sittuesan, baie esekixien les nortzuk, ...* (EEG, 46)
104. (1) *..., da es segoan dirurik, da es segoan les dirurik, ba jentiek da ...* (EEG, 73)
105. (4) *..., baye etxetik estatorren les simindurik bape gurasoatatik eta, euskeriak estakit ser ixango dauen esta, ...* (EEL, 7)

<sup>60</sup> Esaldiok gehienak Bizkaiko herrietako ahozkoak dira *-(e)n les* atzizkia erabiliz, eta modua ez, baina kausa edo adieraziz, beste euskalkietan *-(e)nez* edo *-(e)nez gero* atzizkien bidez egin ohi den moduan. Zentzu modala duen adibide hautsi bakarra (100. adibidea) J.A. Mogelen *Peru Abarka*-koa da.



## II ERANSKINA: ERLATIBO LIBRE HAUTSIAK

### 1. Orokorrak

#### A. Medikantza

##### a. Baiezkoak:

1. (2) Beste gaxo onetarako bat da *emakumeak izan oi dutena geienenbat*, zeñari deritzaion histerikoa ... (1506, 70)
2. (3) ..., itxasoko bañuak izan dirala azkenean **moldatau izan dituenak onelako gaitzik asko**; ... (2147, 97)
3. (4) Esaten degun gaitz au da birikietako edo petxutikako gaitzaren ize-narekin ezagutzen dana eta **eduki oi dutena tisikoak deitzen diogun gaxo errukizko aek** (1142, 55)
4. (4) ..., eta euntzako lana egiten dutenak, edo *leku batean pillatuta egon bear izaten dutenak beren lantegietan*, ... (1157, 56)
5. (4) ...; eta esanik daramazkigun gauza oek eta autsi lekuko odol bil-dua eta eziñ erabilli, dira *alkarganaturik aditzera eman lezazkigunak ezur autsi baten antz bideak* (1684, 78)
6. (4) ..., zergatik diran batzuek eta besteak *maizen gurasoak ikusi bear izaten dituenak beren etxeetan* (2041, 92)
7. (4) Batzuetan azaltzen dira bada ortzak botatzeko denbora bitartean, gaitz aundiak egiazkoak, eta beste batzuetan *itxura geiago daukatenak berez diran bañan*: ... (2057, 93)
8. (5) ..., izanik paraje guztia menditsua eta *erriyo asko dijoazena batetik bestera, zeñak izendatzea ez dagokigun guri leku onetan*, ... (194, 14)
9. (5) Euskaldunak dira bada gizon kondairale jakintsu eta errespetagarri askok diotenez, *arako antziñako jakintsu sonatu Seneca zeritzaion arren denboretan gorderik zeuzkatenak Españiako lenengo bizi lagun edo ibe-roak izendatzen ziran aen beren izkuntza, usariyoak, eta jantzi modu ura bera*; ... (278, 17)
10. (5) Erri guziak naiz izan aundiak edo txikiak, *lendabiziko eduki bear dutena kontuan erabakitzen degun argibide onen gañean* da, nola egin bear duten beren garbitasuna (400, 23)
11. (5) ..., eta naiko errukigarria dala *bere osasuna galdu eta ura osatzeko, jartzen duanak bere burua artarako ezer ikasi ez duanaren eskuetan* (504, 27)
12. (5) Antziñako denboretan izendatu izan da tiputza edo trabajuba *gaurko egunean deritzen dioguna, beste izen modu batzuekin nola diran kalentura ustela, kalentura gaiztoa edo bai eta ere okerra, eta onela beste modu askotara*; ... (564, 29)
13. (5) ..., eta **daukana bere izaera jende asko alkarganaturik eta zikinke-riak eta goseak sortuera ematen diotena**: ... (602, 31)
14. (5) ...; eta azkenik laugarrena berriz *larru-azaleko pikorta, puslo edo maskullu oek legortu eta erortzen dirana, osasunara gaxoa biurtuaz*; ... (771, 38)
15. (5) Medikua da bakar bakarrik *eskubidea daukana gauza oek egiteko onetarako eskatuaz erriko alkate edo agintariai bear dituan txertuak, eta oek sartzeko artarako egiñ eta dauden lanzetak* (1006, 50)
16. (5) Azkenik, da ere txit gauza ongarria asnasea artzeko tokietako gai-tzai alde egiteko eta batez ere ez tul eta modu onetakoai, egunero bus-ti-aldi bat aurre eta atze aldetik leku oei ematea ur otzarekin bañuak artuaz, edo *oraindik errazagoa dana orain esatera goazen bezela* (1241, 59)

17. (5) Azkenik beste gaxo bat ere badaukagu emen izendatzea tokatzen zaiona zeña dan *San Bitoren dantza deitu oi dana, zergatik gaxo ori **daukatenak** badiruri beti dantzan dabiltzala zoratuta baleude bezela* (1519, 71)
18. (5) ...; ez dago zer esan ez bada **ikusi duanari onetarako** istarreko *zaneke miña zer nolakoa eta zenbateranoak izan oi dan* (1532, 71)
19. (5) ...; eta azkenik zardadea zeñaren bitartez beste askotan sortutzen diran gaitz oek, da **egiten duana gure parajeen biotzeko gaxoak askotan ikustea**; ... (1546, 72)
20. (5) ..., baita ere beñi bañan geiagotan *etxe askotako negarra **sortzen dutenak**, beren medioz etxeko buru egiten zuan ura edo seme maite batek beren bizi galtzen dutenean purrakaturik gorputz guztia, erramianta arrigarri eta baita ere bildurgarri aen atzaparren artean erortzen badira inoiz*; ... (1593a, 75)
21. (5) ...; aragiak purrakatutakoa, *errubera batek **egiti lezakeana** beraren azpian edo ortzen artean esku edo anka bat arrapatuta*; ... (1608, 75-6)
22. (5) ..., baizikan osasunez beteta umea dagoanean **etortzen diranak**, *geienbat eguzkiak pasatu dualako, edo txitxareak edo bizixoak dauzkalako, edo beldurtasunen bat artu dualako, edo baita ere geieki zerbait gauza jan, edo ortzetako eta aoko miñakin dagoalako* ... (2006, 91)
23. (5) ..., eta jan eran garbiak artutzea geiegizkorik oetan egiti gabe, izango dira *bañuetatik bear diran ondasunak ateratzeko **eduki bear diranak kontuan***, zeñiak emen argitaratu eta ematen diogun bukaera gure liburu amabigarren argibide oni (2302, 103)

Ezezkoak:

24. (3) ..., ateratzen du oetatik euneko ogeita bost (25%) zirala berak ziyoten ez txertatutakoak, bañan **ez zeukatenak** *besoetan txertuaren señalerik*; ... (957, 48)
25. (5) Bukaera eman zaiogun bada itz bide oni esanaz, errietako agintariak bear dutela iñoren kontu gabe ipiñi bear dan kastigua *ongi erreparo eta bear diran begiramentuak **ipintzen ez dituanari lan onetan***, ... (438, 24)
26. (5) Izendatzen da gaitz au trankazoa eta da bat batera jende askotan sortu oi dana, pegakorra, eta odola usteltzen duana, bañan **ez deguna esango** *beraren gañean gauzarik bearrenak ez bada, zergatik besterik eziñ egiti gantzake argibide labur onetan* (1186, 57)

B. 1994ko corpusa

a. Baiezkoak:

27. (1) Da **esan dotena len**, ... (EEG, 11)
28. (2) ...; baña onec dauqueenian escubide ta auqueria emoteco **gura dabenari seme-alaben artian**, ecarri eraguingo deutsee lotsia, ... (Mo, 483, 108)
29. (2) ..., zeen eta, **dakienak ungi tiroka** arek iltzen du usua polliki (EES, 35)
30. (2) *Andres **zena Labayen***, Iruñin bazun anai bat Alfontso, medikua, ... (EEI, 70)<sup>61</sup>
31. (2) Eta hori da *herriak **ulertzen duena haseran*** (KAI, 45)

<sup>61</sup> Berezia da nolana, eta beharbada har liteke ardatzaren (*Andres*) ondoko aposizio gisako esaldizat.

32. (2) *Ze, legeak esaten duena perfiletat*, gauza gitxi da (ELB, 282)
33. (2) *Eta momentu honetan aukeratzen dutenak A ereduan*, inoiz ez dute aukerarik izango, ... (ELI, 257)
34. (2) Baño, **galdua zutenek beren zentzua**, ... (S, 96)
35. (3) *Nik galdetzen diodana Eusko Jaurlaritzako ordezkariari*, nola ez da ... (KG, 37)
36. (3) *Baina legeak esaten duena euskera aldetik*, horixe da (ELB, 219)
37. (3) **Garantizatzen dagona**, nere ustez, lege batean da, bideak jartzen direla ... (ELB, 222)
38. (3) *Esate baterako, ereduen kontuan esaten dena* da, *eranskin batean*, hiru ereduak daudela (ELB, 226)
39. (3) *Eta da, hain zuzen, hori da, bukatzen, o sea, prozesu bukaeran lortu nahi dena, lege honekin* (ELB, 288)
40. (3) *Ba, nik uste dut, lenbiziko gauza jarri behar duguna garbi*, da, nahi dugula ... (ELGu, 303)
41. (4) *Jesusen orduan eguin zuana guizon gor eta mutua requin*, eguiten du Elizac... (Ag, 209, 84)
42. (5) *Eta bada erraiten duenik biak karrozan edo kotxean ibili zirela, eta han bere iokoa iokatu zutela* (Ax, 397, 397)
43. (5) *Hortaz, alde batetik orduan, konforme nago Goikoetxeak esan duena*, [sic] *filosofiaren krisi bat dagola ideietan mundu guzian* (KI, 29)
44. (5) *Eta ezta kasualidadia, oaiñ arteko azkeneko bolada honetan, lehen-dabizi hasi giñanak aipatzen zer zatorren, eta ze situazio zatorren industrialki*, nik eztakit zergatik, baiña sindikatuak izan giñan (KM, 235)
45. (5) *Eta ahal den neurrian, arrazoizko eta itxurazko dena*, eta orekatua, nolabaiteko pakto eskolar orekatu bat lortzea (ELZ, 178a)
46. (5) *Esperientzia da, erakusten duena, teori batzuek, eta proposamen batzuek, aldatu behar diren, edo; rebisatu behar diren edo ez* (ELGu, 367)
47. (5) ..., *ba, bera defendatzen ari den lege horretan, hirugarren puntuan konkretuki, aipatzen duena da, e ..., esaten duena, ba, "quienes no participan en el proceso selectivo ..."* (ELBe, 73)

b. Ezezkoak:

48. (0) ..., jakin nahi nuke, zer den, **ez zaiona gustatzen** (ELE, 49)
49. (0) *Hori da ez zaiguna gustatzen* (ELE, 54)
50. (0) *Bestela uler daiteke, sare publikoan parte hartzen duten pertsonak, guraso, ikasle eta irakasleak direla, ez direnak gustatzen* (ELE, 58)
51. (0) *Eta eztena demostratu*, gaur eguneko politikoak, hezkuntzan, beste sektoretan esaten duen hori, kapazak direnik gauzatzeko juridikoki, ... (ELBe, 285)
